

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

ENTZUKETA MUSIKALA HAUR HEZKUNTZAN

MUSIKAREN BARNE ELEMENTUAK:
FORMA ETA ADIERAZPENA

Gradu Amaierako Lana

Egilea: Itxaso Anda Etxebarria
Zuzendaria: Domingo García de la Torre Rey
Ikasturtea: 2019-2020

“La música constituye una revelación más alta que ninguna filosofía” (Ludwig van Beethoven)

“Argi dago belarriaren garrantzia musika hezkuntza on baterako” (Zoltan Kodály)

“La música es sinónimo de libertad, de tocar lo que quieras y como quieras, siempre que sea bueno y tenga pasión, que la música sea el alimento del amor” (Kurt Cobain)

Gradu Amaierako Lan hau ahalbideratu eta babesa eman didaten guztiei.

LABURPENA

Aurrean daukazun Gradu Amaierako Lan (GRAL) hau, Haur Hezkuntzako etapan entzuketa musikari eta, bereziki, forma eta adierazpen musikari, buruzkoa da. Lanak planteatzen duen proposamen didaktikoa Haur Hezkuntzako bigarren etapako azkenengo urteetan ezartzeko diseinatu da eta horrek, kontutan edukiko ditu musikaren oinarri musikal psikologikoak eta pedagogikoak Haur Hezkuntzako etapan. Lan honek eta bere barnean biltzen duen proposamen didaktikoak, arestian aipatu bezala, haurrek musikaren bitartez emozioak, nahiak, beharrianak, etab. adieraztea jartzen dute jokoan, bai eta adin goiztiarretan entzumen musikala lantzea ere, musika-lanen forma eta adierazpena bereiztuz, adibidez. Haur Hezkuntzako etapan gauden heinean, helburu guzti horiek, haurren adinarekin bat datozen ariketa eta jarduera ezberdinekin lortzen saiatuko da txostena.

Hitz-gakoak: Haur Hezkuntza, Entzuketa musikala, Forma eta adierazpen musikala.

RESUMEN

Este Trabajo de Fin de Grado (TFG) que tienes delante se centra en la audición musical en la etapa de Educación Infantil y, más en particular, en la forma y la expresión musical. La propuesta didáctica que plantea este trabajo, se ha diseñado para su implantación en los últimos años de la segunda etapa de Educación Infantil, esta propuesta, tendrá en cuenta las bases musicales pedagógicas y psicológicas de la etapa en la que nos encontramos. Este trabajo y la propuesta didáctica que contiene, ponen en juego, como ya se ha comentado anteriormente, la expresión de emociones, deseos, necesidades... por parte de los niños y niñas a través de la música, así como la audición musical en edades tempranas, diferenciando la forma y la expresión musical de las obras, por ejemplo. Teniendo en cuenta que nos encontramos en la etapa de Educación Infantil, el informe tratará de conseguir todos estos objetivos con diferentes ejercicios y actividades acordes con la edad de los niños y niñas.

Palabras-clave: Educación Infantil, Audición musical, Forma y expresión musical.

ABSTRACT

This Final Degree Project (FDP), which is before you, is focused on musical hearing, and particularly, on musical form and expression in Early Childhood Education. The didactic proposal carried out in this project has been designed to introduce it in the last years of Early Childhood Education, that is, in the second stage, this proposal will take into account the musical pedagogical and psychological bases of the stage in which we are. This project and the didactic proposal it contains turn the children's expressions of feelings, wishes and needs into a game throughout music, as well as musical hearing at an early age such as the ability to distinguish the musical form and expression from a piece of music. Bearing in mind that we are in the stage of Early Childhood Education, the report will try to achieve the main objectives through different activities adequate to children age.

Key-words: Early Childhood Education, Musical hearing, Musical form and expression.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	8
2. JUSTIFIKAZIOA, GAIAREN GARRANTZIA ETA ARLOAREN EGOERA	10
3. GRADU AMAIERAKO LANAREN HELBURUAK	11
4. MARKO TEORIKOA: MUSIKA HEZKUNTZA	12
4.1. MUSIKA HEZKUNTZAREN OINARRI PEDAGOGIKOAK.....	12
4.1.1. Musika hezkuntzaren historia	12
4.1.2. XX. Mendeko musika irakaskuntzaren metodo aktiboak.....	17
4.1.3. Musika Espainiako gaur egungo hezkuntza sisteman	24
4.1.4. EAE-ko Haur Hezkuntzaren musika-curriculumak.....	27
4.2. MUSIKA HEZKUNTZAREN OINARRI PSIKOLOGIKOAK	28
4.2.1. Musika irakastearen onurak	28
4.2.2. Musika ikastearen etapak 0-6 urte bitartean.....	31
4.2.3. Musika hizkuntza.....	32
4.2.4. Entzumen musikala	33
4.2.5. Mugimendua eta dantza	34
4.2.6. Ahotsa eta kantua	35
4.2.7. Musika-tresnak.....	35
5. MARKO ENPIRIKOA: PROPOSAMEN DIDAKTIKOA	37
5.1. SARRERA	37
5.2. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN HELBURUAK.....	37
5.2.1. Helburu orokorrak	37
5.2.2. Helburu espezifikak	37
5.3. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN EDUKIAK.....	38
5.3.1. Eduki kontzeptualak	38
5.3.2. Prozedurazko edukiak.....	38

5.3.3 Jarrerazko edukiak.....	38
5.4. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN ORIENTABIDE METODOLOGIKOAK	38
5.4.1. Planteamendu metodologikoa orokorra.....	38
5.4.2. Jarduera zerrenda.....	39
5.5. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAN ERABILITAKO EBALUAZIOA.....	42
5.5.1. Ebaluazio-motak	42
5.5.2. Ebaluazio-tresnak	42
5.5.3. Ebaluazio-irizpideak	43
6. AZKEN BALORAZIOA ETA ONDORIOAK.....	44
7. BIBLIOGRAFIA ETA INTERNETGRAFIA.....	45
8. ERANSKINAK.....	49
I. Eranskina: Kodalyren fononimia	49
II. Eranskina: Swanwick-en espiral metodoa.....	50
III. Eranskina:Espainiako Legeak.....	51
IV. Eranskina: Heziberri	59
V. Eranskina: Jarduera taulak.....	62
VI. Eranskina: 3. ARIKETA: IPUIN MUSIKALA.	65
VII. Eranskina: 7. ARIKETA: POZIK, TRISTE, HASERRE EDO BELDURTUTA?	66
VIII. Eranskina: 8. ARIKETA: HODEIAK ETA EGUZKIA.....	67

1. SARRERA

Esku artean daukazun dokumentu hau, Gradu Amaierako Lana da. Lan honen ardatza eta oinarria, entzuketa musikalak Haur Hezkuntzan duen papera da.

Entzuketa musikala oso prozesu fisiko eta psikologiko konplexua da. Belarrian hasita, organismoan sartzen den zentzumen-informazioa, norberaren esperientzia-multzoaren oroimenari egokitzen da. Prozesu honen bitartez, soinu-estimuluak talde esanguratsuetan bihurtu eta antolatu egiten dira hiru faktoreen arabera; zentzumenak, nerbio-sistema eta adimena.

Entzuketa musikalaren barnean arlo asko egonda, musikaren barne elementuen artean aurkitzen diren forma eta adierazpen musikalak nabarmendu ditut nire Gradu Amaierako lanean. Beraz, lan honen barnean hainbat ikerketa ezberdin topatu ahalko ditugu.

Lanari hasiera emateko, oinarri pedagogikoak aurkituko ditugu. Gaur egun zer garen jakiteko, iraganera begiratu eta ikertu behar dugu. Horregatik, musika-hezkuntzaren historiarekin hasiko gara, guk gertutik ezagutzen dugun musika nola berritu den ulertu ahal izateko. Antzinarotik hasita, ondoren, Erdi aroan murgildu eta Errenazimendua, Barrokoa, Klasizismoa eta Erromantizismoa ezagutuko ditugu, gaur egungo egoerara heldu arte.

Gertu ditugun eta musikaren historian eragin handia izandako XX. mendeko metodo aktiboak ere ikertu egingo ditugu, metodo edo ideia horien sortzaileen kontzeptuak ulertzeko. Horien artean, Willems, Orff, Campbell, etab. aztertuko ditugu.

Era berean, gure hezkuntza sisteman indarrean dagoen eta hezkuntza arloan musika arautzen duen legea ulertzeko, Espainiako historian 1970etik gaur egun arte ezagutu diren legeak eta horietan musikak izan duen garrantzia ikertuko ditugu, horren ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Curriculum-a (Heziberri 2020) arakatzea izango da gure helburua.

Musika-hezkuntzaren oinarri pedagogikoak alde batera utzita, oinarri psikologikoetan murgilduko gara, eta horietan, musikaren onurak alderdi kognitiboan, sozialean, motorrean eta hizkuntzan aztertzeaz eta egiaztatzeaz aparte, musika-hizkuntza, entzumen musikala, mugimendua eta dantza, ahotsa eta kantua eta musika-tresnak Haur Hezkuntzako etapan modu didaktikoan nola jarri praktikan aztertuko dugu.

Lanari amaiera emateko, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan martxan jartzeko nik sortutako proposamen didaktiko baten planteamendua ikusi ahalko dugu. Proposamen horretan, 8 jarduera aurkituko ditugu musikaren forma eta adierazpena hurrekin lantzeko. Ariketa horiekin batera, proposamenak biltzen dituen edukiak, helburuak eta prozesu guztia ebaluatzeko irizpideak ere planteatu dira.

2. JUSTIFIKAZIOA, GAIAREN GARRANTZIA ETA ARLOAREN EGOERA

Nahiz eta gaur egungo gizarteak protagonismo txikia eman, musikaren artea oso garrantzitsua da haurrentzat, eta beraz, musikaren lanketak Haur Hezkuntzan ere paper garrantzitsu bat hartu beharko luke, izan ere, adimen, entzumen, zentzumen, heziketa eta mugimendu garapenean eragina du eta, bai eta alde emozionalean, fisikoan eta kognitiboan ere.

Musikari esker, haurrak gizarteratzeko aukera handiagoak izango ditu, musikari esker umeak bere ekintzetan autonomia lortuko du, bere buruaren eta ingurunearen zainketa emango da eta harreman-mundua zabalduko da.

Era berean, hainbat alde on aurkitzen ditugu abesteko, dantzatzeko edota musika-tresnak jotzeko prozesuetan. Izan ere, haurren arreta maila, kontzentrazioa, oroimena, etab. handitu eta hobetu egiten direlako eta abestiaren, dantzaren eta musika-tresnen bitartez komunikatu eta adierazi egiten direlako ere.

Horretaz aparte, eta lan honen ardatza izanda, entzuketa musikalaren onurak ere aipagarriak dira, izan ere, Calvo eta Bernal irakasleek (1996) dioten moduan: “Musikak gizakiari hasieratik adierazteko eta komunikatzeko balio izan zaio”. Haurrek musika entzutean, entzumen-pertzepzioa hobetzen dute, tonalitate ezberdinen aldea bereizteko kapazak bihurtzen dira. Horretaz gain, tinpanoa hazi egiten da entzumen-sistema hobetuz.

Konklusio gisa, musikak haurrengan etekin positibo ugari sortzen ditu. Hori dela eta, arestian aipatu bezala, gaur egungo gizartean eta batez ere hezkuntzan dauden hutsuneak ikusita, nire Gradu Amaierako Lana burutzeko gai ezinhobea iruditzen zait.

Gai honen barnean, forma eta adierazpen musikalean zentratzeak ere bere justifikazioa dauka. Alde batetik, Haur Hezkuntzako etapan barne elementu horiek gutxi lantzen direlako eta beste alde batetik, haurrek etapa honetan ere, musikaren bidez, nahiak, sentimenduak, beharrak... adierazteko aukera gutxi dituztelako.

3. GRADU AMAIERAKO LANAREN HELBURUAK

- Haur etapako musika hezkuntzaren oinarri pedagogikoak deskribatu.
- Haur etapako musika hezkuntzaren oinarri psikologikoetan erreparatu.
- Entzuketa musikalak Haur Hezkuntzan dituen onurak aztertu.
- Proposamen didaktiko bat diseinatu non musikaren barne elementu batzuk (Forma eta Adierazpen musikala) landuko diren entzumenezko jardueren bidez.

4. MARKO TEORIKOA: MUSIKA HEZKUNTZA

4.1. MUSIKA HEZKUNTZAREN OINARRI PEDAGOGIKOAK

4.1.1. Musika hezkuntzaren historia

Musika hezkuntza, garrantzitsua izan da historian zehar. Hona hemen garai ezberdinetan musikak arlo horretan hartutako papera:

Antzinaroan, musika, bere hezkuntza balioa zela eta baloratzen zen. Herri primitiboetaz egindako ikerketek, honako hau iradokitzen dute: gizakiak aspalditik ahotsa erabili izan duela eta bere gorputzak, oinak, eskuak eta abarrek kantuak erritmikoki laguntzeko eskaintzen dituzten aukerataz ohartu izan dela, bai eta musika-tresnak erabili (harriak, hezurak, etab.) soinua sortzeko.

Aintzinako zibilizazio guztientzat, musikak funtzio soziala bete izan du, baina grekoentzat, hezkuntza funtzio bat ere bermatu du. Izan ere, garai horretako filosofo guztien eskolak, musikaren garrantziarekin bat zetorren eta musika adin txikietatik praktikatzeari gomendatzen zuten. Greziak, musikak hezitu egiten zuela sinisten zuten, eta hori, han ezarritako filosofiaren gakoa izan zen, Platon (K.a. 427) filosofoak adibidez, honela aitortzen zuen: “La música es para el alma lo que la gimnasia para el cuerpo”. Era berean, Grezia garaian, Paideia grekoan, musika eta hezkuntzaren arteko harreman estua ikusten dugu. Homeroko Paideian, pedagogia grekoaren oihurarentzat oinarria adierazten duela, gerlariaren heziketak bi zati zituen: heziketa fisiko bat eta heziketa kulturala, non kantua, dantza, lira-ren erabilera eta beste musika-tresna batzuk lantzen ziren. Musika heziketa hori *musiké* kontzeptuan integratuta dago, poesia, kantua eta dantza biltzen dituena. Gazteek bi musika-tresna jotzeko heziketa jasotzen zuten: lira eta txirula.

Antzinaroan, egiptoarrek, musika eguneroko jardura ezberdinetan erabiltzen zuten, baina tenpluetan eta bere zeremonialean izan zuen garapen gogorrena. Ez da zehatz-mehatz ezagutzen nolakoa zen egiptoar musika, ez baitzen idazten; ahoz transmititzen zen. Musika tresna preziatuenen artean, “sistroa” nabarmentzen da,

perkusiozko musika-tresna. Asko erabiltzen zen beste tresna bat, kaxa harmoniko baxuko harpa izan zen eta haizezko musika-tresnen artean txirula zuzena erabiltzen zen.

Mesopotamian, eragin musikala lurralde askotatik hedatu zen, Feniziatik, Egiptotik, Arabiatik, Greziatik edo Indiatik . Kasu batzuetan, eragina elkarrekikoa izan zen. Musika monodikoa nagusi zen baina badirudi polifonia ere ezagun zutela. Garai horretatik lortu izan diren argazkiei esker, orkesta txikiak ere existitzen zirela jakin izan da. Musika-tresnei dagokionez; kordazkoen artean lira, kitara, arpa, laud... aurkitu ahal ditugu eta haizezkoen artean txirula, tronpeta zuzenak eta espiral formakoak.

Erromatar zibilizazioak, kantua bizi funtzio sozialaren arlo guztietan sartu zuen; lanean, zeremonia erlijiosoetan, maitasunean etab. Hasieratik, Erromak, beste herrien musika onartzen joan zen; Egiptokoa, Greziakoa baita penintsula italikoa ere, herri Estruskoa, Toscana aldekoa. Zibilizazio Estruskoak izugarri baloratzen zuen musika. Erromatarrek bere aldetik, Estruskoen arteak imitatzen saiatu ziren, ahozko musika gehituz. Erroman, Estrusko erregearen erregealdian, Erromatar milizia izeneko musika taldeak sortu ziren, airezko instrumentuak erabiliz, zeremonia eta borrokan parte hartuz.

Jakin badakigu, haur txikiei oparitutako lehenengo jostailua, txintxirrinak zirela eta musikak paper garrantzitsu bat jokatzen zuela hezkuntzan. K.a II. mendeko erdialdean, nobleek musika-instrumentu bat jotzen jakitea edo abesten jakitea ohikoa zen eta familia askok dantza eta musika eskoletara bidaltzen zituzten seme-alabak. Nahiz eta hezkuntzan parte hartzeko aukera dirudun familien semeek bakarrik izan, emakume erromatarrek musika praktikatu zuten musikajole edo abeslari moduan.

Erdi aroan, kristau zibilizazioan, musika liturgiaren parte zen eta bertan paper handi bat zeukan; kantua, sentimendu erlijiosoak adierazteko modurik onena zen. Behe erdi aroan zehar, katedral, monasterio eta parrokia gehienetan ofizio erlijiosoetan laguntzeko, haurrak abesten ikas zezaten eskolak eraiki ziren, non musika hezkuntza barne zegoen. Hala ere, irakasle gutxi zeuden eta horien formakuntza ez zen oso ona.

Herri hizkuntzen jaiotzak ondorio handia eduki zuen erdi aroko musikan, musika profanoari hasiera eman ziolako, eta horrekin, juglare eta trobadoreen sorkuntza ere. Ahots-musika zen nagusia eta elizetan organoa erabiltzen zen gurtzarako.

Erdi Aroan, Erdi Aroko unibertsitateak sortzen dira katedralen eskoletatik, horiek, Carlomagno legistatu eta Europa osoan kokatu egiten dira IX. mendetik aurrera. Espainian, Salamankako unibertsitatea mendebaldeko kulturaren barruan musika ikaskuntza bere programetan sartzen duen lehenengo unibertsitatea da. Alfontso X.a Jakitunak, Salamankako unibertsitateko ikasketa plana antolatzean 1254an, musika Quadrivium-aren barruan kokatzen du. Alfontso X.a Jakitunak (1221-1284) adierazten zuen moduan: “Yo cree las reglas y ordenes a seguir en el reino y ahora que llevo a mi fin, no se respetan y me lamento”.

Eskoletako hezkuntza, bi atal nagusitan banatu egiten da; Trivium eta Quadrivium. Bi izen horiek garai horretan hezkuntzak ahalbidetzen dituen ezagutza guztiak lortzeko hiru (Trivium) edo lau (Quadrivium) bideei egiten diete erreferentzia. Trivium-ak gramatika, dialektika eta erretorika biltzen ditu. Quadrivium-ak aldiz, aritmetika, geometria, astronomia eta musika. San Severino Boecio, erromatar poeta eta filosofoa izandakoa, bai eta Erdi Aroko lehenengo musikologoa, Quadrivium-ari buruzko idazketak egiten ditu garai horretan, garrantzia emanez.

XV. eta XVI. mendeetan zehar, **Errenazimendua** aurkitzen dugu. Musikari gehienak kapera musikaletan lan egiten eta formakuntza jasotzen zuten, bertan, entsaiatu egiten zuten, elizaren mesedetan. Errenazimenduan, musika liturgiatic eta poesiatic banatzen hasten da. Konpositore eta musikarien arteko ezberdinketa hasten da eta handik aurrera, musika hartzailereengan pentsatzen sortzen da, gortea orokorrean. Musika sozialki ondo ikusita zegoen, gainera, musika-tresnak hobetu eta garatu egin ziren (organoa, klabea, biola, etab.).

Errenazimenduan inprentaren sorrera ere aurkitzen dugu eta hemendik aurrera kultura jende gehiagoren eskura egongo da, bai eta musika ere. Garai honetan, jatorri gotikoko musika-tresna batzuk desagertzen dira eta polifoniari ondo eusten diotenen bizirik jarraitzen dute.

Martín Lutero (1483-1546) teologo eta fraide alemaniarrak paper garrantzitsua izaten du Errenazimenduaren musikan, berritzaile lanak egiten ditu garai horretako musikan; kantu gregorianoak ordezkatzeko dituzten erreperitorio koralak sortzen ditu. Martín Luterorentzat (1483-1546) musika oso garrantzitsua da, Jainkoaren opari bat da eta. Bere esanetan: “La música constituye el mejor alivio para un hombre preocupado. Gracias a ella el corazón vuelve a estar contento, se reconforta y se renueva”.

Barrokoan, Johann Amos Komensky (“Comenio”) (1592-1671) izeneko teologo, filosofo eta pedagogo txekiarra aipatu behar da. Errealismo pedagogikoaren ordezkaria, ikasleak soinuak ezagutzen hastearen garrantzia gomendatzen du, gero horiek gogoratzeko eta amaieran hausnartu eta horiek epaitu ahal izateko. Comenio (1988:80)ren esanetan: “Erraztasunez ikasi ahal izateko ahalik eta zentzumen gehien erabili behar dira. Elkarrekin joan behar dira beti belarria ikusmenarekin eta mingaina eskuarekin”. Garai honetan ere Johann Sebastian Bach (1685-1750) konpositore alemaniarra aurkitu dezakegu.

XVIII. mendean, **Klasizismoa** aurkitzen dugu, Barrokoa eta Erromantizismoaren arteko garaia. Garai horretan, musika elizetatik eta jauregietatik irteten da eta ikuskizun publikoetan zein burgesen etxeetan ere entzun daiteke. Klasizismoaren musikak oreka bilatzen du, musika sinplea, liraina eta fina da. Musika-tresna garrantzitsuena pianoa da, Barrokotik datorren klabearen eboluziotik sortuta. Garai horretan, Wolfgang Amadeus Mozart (1756-1791) konpositore austriarra da azpimarratzekoa. Espainiako kasua, aldiz, ez da hain ona; espainiar musikan garai pobre batean aurkitzen gara, orkestra eta antzerki gutxi existitzen dira eta espainiar musikariek beste herrialde batzuetan bilatu behar dute lana.

Hezkuntzan aldiz, musikak beste bide bat hartzen du Klasizismoan. Jean Jacques Rousseauk (Suitza 1712-1778), denboraldi hauetan musika jende gehiagorentzat eskuragarria izatea nahi du. Horrela ere, musika adin goiztiarretan ikastearen aldekoa dela defendatzen du. Publikoak musikariak miresten dituzte, asko disfrutatzen dute musika entzuten, dibertimendurako bidea da eta musika klasikoaren

ezagupena begi onekoa da. Garai honetan musika-hezkuntzaren garrantzia asko handitzen da eta ohikoa da etxe gehienetan piano bat aurkitzea. Gurasoak beraien seme-alabek eta senideek hezkuntza-musikala jasotzeaz arduratzen dira.

Klasizismoan lehenengo kontserbatorio publikoak sortzen dira Parisen, Estocolmon, Vienan... Rousseauk, musikari autodidakta izan dena, zenbakietan oinarritutako musika irakasteko sistema berri bat asmatzen du, noten izenak ordezkatzeko dituenak. Era berean, musikariek musika sortzeko askatasun handiagoa lortzen dute eta inprentaren sorkuntzari esker, musika jende gehiagoren eskuetan agertzen da.

Aro garaikidean, XVIII. mendetik aurrera, Iraultza Frantsesarekin batera, musikaren fama handiagoa hartzen du publiko gero eta handiago eta zorrotz batekin. Horrela, lehenengo kontzertu publikoak sortzen dira eta musika-hezkuntza modan jartzen da emakumeen artean batez ere.

Erromantizismoan hainbat izen aipagarri aurkitzen dira, horien artean, Pestalozzi eta Froebel. Horietaz aparte, Ludwig van Beethoven (1770-1827) konpositore alemaniarra aipatu beharra dugu, garai honetan musikaren historian izan duen protagonismoa dela eta.

Johann Heinrich Pestalozzi (Suitza 1746-1827), Rousseauen jarraitzaileak, kantu ariketei garrantzia ematen die. Musika, hezkuntza moralaren laguntzailea aintzat hartzen du. Didaktikoki lehenengo soinuak ezagutzea (pertzepzioa) gomendatzen du, gero horren irudikapena (idazketa) eta amaitzeko horien formakuntza zuzentzen dituzten legeak (pentsamendua). Pestalozzi (1799) bere “Las veladas de un ermitaño” idazkian adierazi bezala: “En suma: Educar con verdad y naturalidad para la sabiduría... para la paz”.

Friedrich Froebel (1782-1852) alemaniar kindergarten-aren sortzailea da eta Rousseauen eta Pestalozziaren pensamendu bera jarraitzen du. Lehenengo zentzuak hezitu behar dira. “Amatzen eskolan, haurrak naturaren erdian bereizi egingo ditu txorien kantak, intsektuen burrunbak (...) eta haizearen kanta. Era berean, berbalismorik gabe soinuak bereizi egingo ditu.” Froebelek kantu ezberdinak sortzen ditu hezkuntzan erabiltzeko froebelismo izeneko materialarekin batera, azken horren barnean, esfera, kubo eta zilindroa aurkitzen dira. Joko guztiak kanta aipatuz laguntzen ditu.

4.1.2. XX. Mendeko musika irakaskuntzaren metodo aktiboak

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, *Eskola berriak*-en sorkuntzarekin berrikuntza pedagogiko bat ematen da. Horrek, hezkuntza osoarengan eragina dauka, baita musikan ere. Garai horretan, hezkuntza pedagogo batzuk nagusitasuna hartzen dute, Decroly, María Montessori, John Dewey, Célestin Freinet, etab. Horiek ere, musikak Haur Hezkuntzan duen garrantzia nabarmentzen dute garai honetan.

A) XX. MENDEKO LEHEN ERDIKO METODO AKTIBO BATZUK:

Emile Jacques Dalcroze (1865-1950)

Emile Jacques Dalcroze Suitzarra “Erritmika” izeneko metodoaren sortzailea da eta hori Ginebrako kontserbatorioan hasten da. Metodo hau, soinuen eta mugimenduen arteko koordinazioan oinarritzen da. Era berean, ikasleen kopurua garrantzitsua da bai eta taldea homogenea izatea. Horrela, arreta, adimena eta bere azkartasuna, sentsibilitatea eta mugimendua lantzen dira ariketa melodikoen, mugimendu-ariketen, inprobisazioaren eta amaierako erlaxazioen bitartez, musika ikasteko ariketa mekanikoei aurre eginez.

Metodo honen helburua belarri-musikala, zentzu melodikoa, tonala eta harmonikoa seigarren zentzuaren bidez (muskulua, mugimenduaren bidez bideratuta) garatzea da.

Inprobisazioa nagusi da metodo honetan, haurrak askatasunez ibiltzen hasten dira eta musika hasten denean, poliki-poliki, konpasera moldatzen dira noten balioak sartuz: zuria oso astiro doazen ekintzetarako, beltza martxarako, kortxea lasterketarako, kortxea puntilloarekin eta semikortxea salto/galopa egiteko.

Ahotsa eta kantuari dagokionez, Dalcrozek musika solfeoko teknika propioa sortzen du. Dalcrozek, musika-hezkuntza adin goiztiarretan hastea eta instrumentu baten ikaskuntzaren aurrean joatearen garrantzia babesten du.

Zoltan Kodály (1882-1967)

Muskagile hungariarra nekazal musikan oinarritu zen, eta musika hori bere ustez, komenigarria da haurren familia giroan sartzan hastea, ondorioz, eskolara erreperitorio txiki batekin helduko dira. Haur eskoletan, haurrek abestiak entzunda ikasiko dituzte eta lehenengo edo oinarrizko musika elementuak irakatsiko dizkiete, txaloak emanaz edo erritmoan ibiliz eta abestuz. Garrantzitsuak dira etapa honetan joko musikalak, non haurrek mugimenduak ikasten dituzten aldi berean.

Kodály metodoak Dalcroze metodoaren zenbait alderdi erabiltzen ditu, baina bere metodoa honetan oinarritzen da bereziki: “Musika ez da entitate abstraktua (solfeo zaharraren eran), musika sortzen duten elementuei harremantzen da (ahotsa eta musika-tresna).

Ikuspegi pedagogikotik, irakurketa-idazketan, silaba erritmikoetan, fononimian eta solfeo erlatiboan oinarritzen da metodoa. Silaba erritmikoekin, Kodályk irudi bakoitza eta bere balioa silaba batekin erlazionatu nahi du, sentsazio fonetikoa har dezan. (Ta beltzak, titi kortxeak eta abar)

Erabiltzen dituen metodoen artean, arestian aipatu bezala, fononimia aurkitzen dugu, horren bitartez, altuera bakoitza ondorengo esku-zeinuen bitartez adierazten da. (Ikusi irudia I eranskinean)

Carl Orff (1895-1982)

Alemaniarra, metodoaren sortzailea, orkestra zuzendaria eta Alemaniako XX. mendeko musikagile garrantzitsua izan zen. Musika-hezitzaile gisa eta haurrentzako metodo baten sortzaile gisa da mundu osoan ezaguna. Bere ekintza pedagogikoak, errimak, esaerak, ariketa instrumental erritmikoak etab. ditu.

Orff hezkuntza planteamendu aktiboa da haurrak parte hartu, sortu eta antzeztu egiten duelako. Bere lana hitzetik, melodietatik eta eskala pentatonikotik (do, re, mi, sol, la) hasten da.

Kodályren moduan, Orff-ek ere bere herrialdeko eta bere ohituretako folklore elementuak gehitzen ditu metodo honetan. Bere metodologiak honako prozesu hau aurkezten du: hitzetik hasten da esaldira iristeko, gero, esaldia gorputzera transmititzen da perkusiozko musika-tresna bihurtuz eta horrela gorputz-perkusioa lantzen da (pausuak, txaloak, txistuak...)

Orff-ek hitza erabiltzen du erritmoa garatzeko: esaldi segidak, haur errimak, asmakizunak... Metodo honetan, giza-instrumentuek erritmo-heziketa on bat ahalbidetzen dute gorputz mugimenduen bitartez; txaloak, txaloak belauetan... Geroago, Orff-ek sortutako perkusiozko musika-tresnak joko dira "Orff instrumentuak" izena jasotzen dutenak. Haurrek jotzeko errazak dira, erakargarriak beren kolore eta tinbreei esker. Gainera, dantza eta inprobisazioa sustatzen dute. Horiek, telaz, metalez, animalien larruz, zurez etab materialekin eraikita daude.

Metodo honetan agertzen diren melodia gehienak, haur abesti herrikoiak eta erdialdeko Europako abestiak dira eta hauek dira abesteko erabiltzen diren kantak. Metodo honen hasieran eskala pentatonikoa erabiltzen da.

Edgar Willems (1890-1978)

Edgar Willems Belgikarra, Dalcroze-ren jarraitzailea, psikologiaren ikaskuntzatik hezkuntza-musikalak oinarritu dituen metodoaren sortzailea da eta inork baino gehiago, entzuketa garatzen du. Beste metodoen sortzaileek ez bezala, Willems-ek prozedura extramusikalak kaltegarriak direla uste du, haurraren arreta apurtzen dutelako eta hezitzailearentzat denbora galtze bat suposatzen dutelako.

Bere jarduerak jolasean zentratzen ditu; jolas horren bidez, barne-erritmoak deskubritzen ditu eta haurraren sen, afektibitate eta buruko planoak ikertzen ditu. Willems-ek horren adinik goiztiarreetik hasi behar dela erabiltzen, etxean bertan, uste du.

Edgar Willems-entzat belarri musikalaren hezkuntza, hezkuntza musikalaren eta pertsonaren formakuntzaren alde garrantzitsua da. Belarri absolutua nahiz erlatiboa kontutan hartzen ditu eta entzuketa hiru motetan sailkatzen ditu:

1. Sentsoriala (erritmoa)
2. Afektiboa (doinua)
3. Mentala (armonia)

Willems-i erritmoa premiazkoa dela iruditzen zaio. Willems-en lanek hezkuntza eritmikoaren oinarria gorputz mugimenduan dagoela baieztatzen dute, horregatik, metodo honetan, sehaska kantak, salto egiteko kantak, txaloekin laguntzekoak etab. aurkitzen dira.

Abestia, entzumen garapenerako medio onena da, horregatik, abesti-sailkapen on baten beharra dago. Haur txikienekin adibidez, 2-5 bitarteko notak dituzten abestiak erabili behar dira. Willems-ek kantua edozein interpretazio-instrumental guztien aurreko ikasketa moduan proposatzen du.

Musika-tresnei dagokionez, Willems-ek hezkuntza musikala garatuta izandakoan, orduan musika-tresna baten ikaskuntza hasi daitekela defendatzen du, musika-tresna egokienak pianoa edo txirula izango lirateke.

Maurice Martenot (1898-1980)

Ingeniari, antzezle eta musikagile frantsesaren metodoa, material akustikoen inguruan egindako ikerketetan, psikopedagogian eta haurren zuzeneko behaketan eta era berean, Montessorik ezarritako hiru hezkuntza momentuetan (imitazioa-azterketa-erreprodukzioa-n) oinarritzen da. Beste metodoen artean bereiztu egiten da erlaxazioari eta kontrol muskularrari ematen dion garrantziagatik.

Metodo honek helburu hauek ditu: musika sakonki maitaraztea; musikaren garapena hezkuntzaren zerbitzura jartzea; izaeraren garapenaren alde egitea; energiak bideratzeko bitartekoak ematea; ezagutza teorikoak modu bizian transmititzea, musika jokoetan zehaztuz besteak beste. Horregatik garrantzizkoak dira ondorengo jolasak: isiltasun jolasak, hizkuntzaren erabileran oinarritutako jolasak, barne-entzuketa edota prestakuntza sentsoriala.

Era berean, metodo honen alderdi garrantzitsuenetako bat gorputz erlaxazioa da. Erlaxazio ariketek atsedeen mentala eta fisikoa bermatzen dute. Hori, *erlaxazio segmentatua* da, hau da, gorputz atalak banatuta erlaxatzen direla.

Intonazioari dagokionez, imitaziotik abiatzen da. Lehenik notarik gabe, nu silabarekin, tartearen arabera igo edo jaitsi daitekeena, mugimendu melodikoa keinuarekin jarraitzen duen bitartean (keinu eta soinuaren elkarketa).

Justine Ward (1879-1975)

Justine Ward Estatu Batuarraren obra pedagogikoa, Kodályrena baino oihartzun gutxiena daukanak, eskolak ume guztiei ondo abesteko aukera ematea dauka helburu bezala. Metodoa guztiz bokala da, ahotsa instrumentu garrantzitsuena kontsideratzen du eta afinazio perfektua, entzumen lanarekin eta haur abestiekiko erritmoaren lanketarekin lortzea dauka helburu.

Ward-ek ahotsen sailkapena burutzen du, inor baztertu gabe. Honako hau izango litzateke sailkapena:

1. Optimoa: ahots ona eta erritmoaren zentzua.
2. Erregularra: ahots ona eta erritmoaren zentzu erregularra edo alderantziz.
3. Ahots txarra eta erritmoaren zentzu txarra.

Metodo honetan soinuak gorputzarekin adierazten dira. Aurkezpen hori 1etik 7rainoko zenbakiekin egiten da, nota bakoitzari zenbaki bat eskainiz.

B) XX. MENDEKO BIGARREN ERDIKO BESTE METODO AKTIBO BATZUK

Shinichi Suzuki (1898-1998)

Japoniar biolinistak, metodo hau sortu zuen. Metodo hau, talentu-hezkuntza ere deitzen da eta honako hau defenditzen du; musika-talentua ez da innatoa ezta herentziazkoa, gure inguruko eraginagatik sortu egiten da, adin goiztiarretan batez ere eta errepikapenak lagundu egiten du. Era honetan, gaitasun musikalak ezin direla garatu inguruak ez badu laguntzen kontutan hartzen da.

Bai irakasleek bai gurasoek garatzen jarraitu behar dute, haurra gero eta giro mesedegarriagoan egon dadin ikasteko eta garatzeko.

Bibolina 3 edo 4 urterekin jotzen hasi behar dela defendatzen du Suzukik, izan ere, bibolinak belarria hezitzen du eta haurrak imitazioaren bitartez ikasten du. Metodo hau indibiduala da baina esan beharra dago haurrek beste haur batzuk ariketa berdina egiten ikusten ikasten dutela. Modu berean, oso lagungarria da umeei kontzertuetan parte hartzea, non publiko baten aurrean jotzen ikasten duten, bai eta besteak entzuten ikasi ere.

Idazketa musikala haurrek musika-tresna guztiz menderatzen dutenean hasiko da. Suzukik musikan familiaren garrantzia behin eta berriz azpimarratzen du, horregatik, aktiboki konprometitzen ditu gurasoak ikasketaren hasieran eta prozesu osoan.

John Frederick Paynter (1931-2010)

John Frederick Paynter konpositore eta hezitzaile ingelesa, metodo honen sortzailea da.

Paynter-ek nerabeekin egiten du lan batez ere, bere musik propioarekin. Ikasleria prestatzeko, beste metodo batzuk ez bezala zeintzuk beste mendeetako musika erabiltzen dutenek, Paynter-ek XX. mendeko musikari ematen dio garrantzia, ikasleetatik gertuago egoteagatik.

Raymond Murray Schafer (1933)

Kanadiar konpositore, hezitzaile, pedagogo eta idazlea izan zen. Horretaz aparte, ingurumenaren aldekoa zenez, apustu handia egiten zuen arlo hori eta musika harremanetan jartzeko. Schafer nazioartean ezaguna bilakatu zen sortutako "munduko soinu-paisaia" proiektuagatik eta ekologia akustikoaren alde borrokatzeagatik.

Murrayren ustez, musikak ez du jendea ona bilakatzen. Haurrei musika irakastearen garrantzia honako hau dela aipatzen du Schaferrek: ingurune soinuak ezagutzeko eta horietaz gozatzeko kapaza den belaunaldi bat sortzea.

Metodo honen arabera, irakasleak ez du musika irakasten, musika egiten du. Murrayk proposatzen duena honako hau da: haurrak soinu paisaia aurkitzea

lehendabiziz, bigarrenez musika sortzeko bakoitzak duen gaitasun kreatiboa deskubritzea eta hirugarrenez, musika eta beste arte guztien topaketa sustatzea.

C) AZKEN TEORIAK ETA SISTEMA BERRITZAILE BATZUK

Keith Swanwick (1937)

Britania Handiko emakume hau, adinarekin harremandutako musika-hezkuntza prozesu honen sortzailea da. Metodo honetan, "Espiral" izeneko modelo jarraitzen da eta lau etapatan ematen da: domeinua, imitaziozko jokia, jolas irudimentsua eta metakognizioa;

- Domeinua 0-4 urte bitarteko etapan kokatzen da eta material sentsoriala eta manipulatioa dauka oinarri.
- Imitaziozko jokia 4-9 urte bitarteko etapan kokatzen da. Horretan, adierazpenak paper garrantzitsua hartuko du, sentimenduetan oinarria daukaten ideia musikalak plazaratzeko unea izango da, adibidez.
- Jolas irudimentsua 10-15 urte bitartean emango da eta formak garrantzia edukiko du.
- Metakognizioa azkeneko urratsa izango da, 15 urtetik aurrera, horretan balioak paper garrantzitsu bat hartuko du. Etapa horretan, musikaren balioaz ohartuko dira gazteak eta esperientzia musikalaren inguruko gogoetak sortzeko aukera izango dute.

(Ikusi espiralaren irudia II. eranskinetan)

Swanwick (1991)en esanetan, bere ereduaren espiral forma hiru oinarri hauei erantzuten die:

1. "Se trata de un proceso cíclico puesto que nunca se pierde la necesidad de retornar a los materiales sonoros, reingresando en la espiral reiteradamente, al margen de la edad o de la experiencia musical acumulada.
2. Es un proceso acumulativo en el cual la sensibilidad sensorial y el control manipulativo interactúan entre sí y, más tarde, lo hacen con la expresión personal y convencional.

3. Representa un movimiento pendular recurrente entre una perspectiva más individual (en la zona izquierda de la espiral) y una perspectiva de participación social (representada a la derecha de la espiral).”

Patricia Shehan Campbell (1950)

Estatu Batuetan unibertsitateko irakaslea da Whashingtonen. Bertan, hezkuntza-musikaleko eta etnomusikologia klaseak ematen ditu. Bere formazioa Euritmica Dalcroze, pianoa eta ahots interpretazioa, eta Bulgariako abesbatzen kantuan, indiar (karnatiko) ahots errepertorioan eta thailandiar mahori errepertorioan espezializatutako ikasketak barne hartzen ditu.

Campbellrek, ikerketen eta argitalpenen bidez, haurren garapen musikala ulertzen lagundu du, bai eta munduko musikaren pedagogia ezartzen ere, kultura urrun edo ezezagunen musika ezagutzeko metodo bideragarri gisa, eta eskolan, komunitatean eta unibertsitatean hezkuntza musikalaren praktikan aniztasun kulturala lortzen.

4.1.3. Musika Espainiako gaur egungo hezkuntza sisteman

Espainia Europar Batasunean sartu zenean, politika arloan libre ekiteari utzi zion lege batzuk jarraitzeko. Lege horien artean, hezkuntza lege ezberdinak aurkitzen ziren, horien barnean, herrialde bakoitzak bete behar dituen minimoak agertzen dira. Hezkuntza lege horiek, herrialde guztietan antzeko marko bat egotea bermatu beharko lukete, ikasleak Europa osoko herrialdeetatik arazo gabe mugitu ahal izateko.

Hala ere, Espainian, Gobernuak hezkuntza-curriculumaren zenbait alderdi erabaki egiten ditu eta erkidegoetako administrazioek beste batzuk. Hori dela eta, autonomia-erkidegoen artean zenbait desberdintasun sortu dira.

Lege adierazgarrienak kontutan hartuz eta kronologikoki ordenatuz, horietan musikak hartzen duen garrantzia aztertzea goaz atal honetan:

LGE (1970)

1970an “Ley general de educación” (A-1970-852) legea jarri zen indarrean. Lege horrek, lehenengo legea izanda, musikari lehenengo kontzeptuak zehazten ditu, hala nola:

- Haur Hezkuntzan jolasak, hizkuntza-jarduerak eta adierazpen erritmikoa aurkitu ahal ditugu, beste batzuen artean.
- Oinarrizko Hezkuntza Orokorrean, garrantzia ematen zaio adierazpen estetiko eta artistikoari.
- Batxilergoan, gai komunen artean, prestakuntza estetikoa aurkitzen dugu, horren barnean musikari eta marrazketari arreta berezia emanez.

LOGSE (1990)

1990ko urriaren 3an indarrean jarri zen LOGSE 1/1990 legea. (Urriaren 4an BOEn argitaratu zen). Lege honetan, musikaren papera eta garrantzia aldatu egiten da. Espezialista berriak sortzen dira garai honetan, eta horrekin batera, musika-espezialistak ere. Horretaz gain, musika Lehen Hezkuntzan agertzen da lehenengo aldiz lege berri honetan.

Hauek dira lege honen zehaztapen batzuk:

- Araubide bereziko irakaskuntzen artean, irakaskuntza artistikoa aurkitzen da.
- Lehen Hezkuntzako hezkuntza arloen artean hezkuntza artistikoa aurkitzen da.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren arloen artean, nahitaezkoak diren ezagutza-arloen artean musika aurkitzen da.
- Irakaskuntza artistikoak indarra hartzen dute. Ikasleei kalitatezko prestakuntza artistikoa ematea eta etorkizuneko musikako (eta beste arlo batzuetako) profesionalen kualifikazioa bermatzea izango dute helburu.
- Musikako araubide bereziko irakaskuntzan jarduteko, beharrezkoa izango da lizentziatu, ingeniari edo arkitekto titulua edo irakaskuntzaren ondorioetarako

baliokidea den titulazioa izatea, eta ezartzen diren ikasgai pedagogikoak eginak izatea.

- Musikaren erdi-mailako hirugarren zikloa gainditzeak dagokion irakaskuntzako lanbide-titulua eskuratzeko eskubidea emango du.

LOE (2006)

2006an gobernuak indarrean jarritako eta BOEn argitaratutako 2/2006 lege organikoak hezkuntza sistemaren berrikuntza suposatzen zuen. Horretan ere, musikak hezkuntzaren barnean hartzen garrantzia aipatzen zen, 2/2006 lege organiko honen arabera honako hau izanda:

- Haur Hezkuntzan trebetasun logiko-matematikoetan, irakurketa-idazketan eta mugimenduan, keinuan eta erritmoan hasteari garrantzia ematen zaio.
- Lehen Hezkuntzaren helburuen artean, adierazpen artistiko ezberdinak erabiltzea aurkitzen dugu.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren helburuen artean, arte-sorkuntza balioestea eta arte-adierazpenen hizkuntza ulertzea aurkitu ahal dugu eta irakasgai espezifikoen artean, musika.
- Batxilergoko lehen eta bigarren kurtsoan musika-analisia I eta II aurkitzen ditugu irakasgaien artean.
- Aurreko legean bezala, irakasgai artistikoen presentzia ikusi ahal dugu honetan ere. Horiek, 6 kurtsoetan emango direlarik.

LOMCE (2013)

LOMCE izeneko 8/2013 lege organikoa gaur egun Espainiako hezkuntza sisteman indarrean dagoen legea da. Aldaketa ugari eman izan dira lege berri honetan, eta musikaren garrantziak ere aldakuntzak jasan izan ditu. Lege honen aurrean eztabaida ugari sortu izan dira, izan ere, irakasgai batzuei, musika horien artean, pisu handia kendu diete eta.

8/2013 lege organikoaren arabera:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lehenengo zikloan eta 4. mailan, irakasgai espezifikoen artean musika aurkitzen dugu.
- Batxilergoaren lehenengo mailan, irakasgai espezifikoen artean analisi musikala eta praktika eta hizkuntza musikala aurkitzen dira.
- Batxilergoko bigarren mailan aldiz, analisi musikala II eta Musika eta Dantzaren historia.

- Aurreko legeetan bezala, Musikako ikasketa profesionala gainditzeak dagokion teknikari-titulua lortzeko eskubidea emango du eta musikako ikasketa profesioaletako teknikari-titulua duten ikasleek batxiler-titulua lortu ahal izango dute.
- Gainera, lege honen arabera, ikasketa profesioaletara sartu ahal izateko derrigorrezkoa da 16 urteko adina izatea.

(Begiratu III. eranskinean aurreko lege guztien taula zehatzak)

4.1.4. Euskal Autonomia Erkidegoko-ko Haur Hezkuntzaren musika-curriculuma

237/2015 dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

Gaur egun EAEn indarrean dagoen dekretu honetan, Heziberri 2020 izenekoa, Haur Hezkuntzako haurrek jaso beharreko hezkuntza musikalaren hainbat alderdi agertzen dira. Atal honetan, horiek aztertuko ditugu.

- Heziberrin oinarrizko konpetentzien artean, arterako konpetentzia aurkitzen dugu, bere barnean abestiak, dantzak, mugimendua eta adierazpena... gehitzen dituelarik.
- Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremuaren barneko ezaugarrietan musika-hizkuntza dago, horrek zenbait ahalmen lantzen dituelarik: pertzepzioa, erritmoa eta kantua beste batzuen artean.
- Aurreko eremuaren helburuen artean, arte-produkzioetan (musikan besteak beste) parte hartzea aurkitzen dugu.
- Edukietan, beste batzuen artean, zentzumenak esploratzea edota soinu batzuk entzumenaren bidez bereizten hastea.
- Ebaluazio irizpideen artean, askotariko komunikazio-estrategiak erabiltzea (horien artean musika) bere beharrianak, emozioak, bizipenak, sentsazioak eta gogoak adierazteko.

(Begiratu IV. eranskinean Heziberri 2020ko taula zehatza)

4.2. MUSIKA HEZKUNTZAREN OINARRI PSIKOLOGIKOAK

4.2.1. Musika irakastearen onurak

Musika irakastearen onurak, adituen ustez, asko dira, eta hauek, sarritan entzun izan ditugu. Hala ere, ikusmen-urritasuna edo itsutasuna pairatzen duten 4 eta 6 urte tarteko umeentzat musika ikaskuntzak haien garapen globalean izan dezakeen onurei buruzko informazio eskasa heltzen zaigula edo jasotzen dugula aitortu behar dugu. Horregatik, EHUko *Revista de Psicodidáctica*-n Eva Garcia Rodriguez (2004)-ek idatzitako artikuluan adierazi bezala:

“La carencia de visión o visión deficiente provoca problemas como la limitación de oportunidades de interacción o experimentación del entorno. Éstos pueden afectar al desarrollo evolutivo de los niños que los padecen provocando retrasos y dificultades sobre algunos aspectos de las áreas cognitivo-perceptiva, motriz y expresivo-afectiva. Creemos que un aprendizaje musical significativo puede ayudar al niño con baja visión o ceguera a desarrollar estos aspectos desfavorecidos de las áreas anteriormente nombradas, mejorando así el desarrollo global de éste.” (1. or).

Aintzinean, ikusmen-urritasuna pairatzen zuten pertsonak, gizarteari begira, pobreak, eskaleak, alferrikakoak... ziren, kalean musika-tresnak jotzen zituzten limosnaren truke. 1812anitsuak, eskaleak eta pobreak udaletxeen esku geratzen dira, handik aurrera pertsona horientzat akademiak, eskolak, klaseak... sortzen dira eta 1821ean sortutako eskolak elkartu egiten dira doako eskola bat sortuz.

Bartzelonako eskolan, geroago itsuentzako beste eskola guztietan gertatuko zen bezala, musikak paper garrantzitsua hartu zuen hezkuntzan. Bertan zegoen Juan Carreras irakasleak, musika irakasteko ordu gehiago eskatu zituen honela justifikatuz: “ de la música las personas ciegas van a recibir felicidad en sus vidas, tanto para darles medio de vivir como para distraerles de su triste aislamiento” (Burgos,2004)

Moira Hausek 1910ean Eastbournen egindako ikerketak musika-ikaskuntza egoki batek izan ditzakeen eragin positiboak azaldu zituen. Ikerketa horretan, 7-17 tarteko adineko neskei, astero 2-3 orduko musika klaseak eman zizkien, berehalako emaitzak lortuz; ulertzeko azkartasuna, kontzentratzeko gaitasuna eta nesken parte-hartzea handitu egin ziren, gainera, haien nortasuna irekiagoa bihurtu zen eta zailtasun gutxiagorekin mintzatzen ziren.

Ezgaitasunak pairatzen dituzten haurrengan ez ezik, musikaren irakaskuntzak onura globalak dituela egiaztatu da, hainbat arlo diferenteetan.

Soinua eta musika sortzetikoak zaizkio gizakiari, eta bizitzako lehen hilabeteetan aurkezten dira; beraz, musika heziketa adin goiztiarretan hasi behar da. Asko dira musikaren garrantzia azpimarratu eta hezkuntzan ahalik eta azkarren txertatzen duten pedagogoak eta psikologoak, izan ere, asko dira musikak sortu ahal dituen onurak.

Onura kognitiboak:

Hainbat ikerketek adierazten dute beharrezkoa dela musika-hezkuntza integratzea gizabanakoaren prestakuntza integralaren zati gisa, hezkuntza intelektual, gorputzezko eta emozionalari egiten dien ekarpena bikaina delako.

Calvok eta Bernalek (2000) adierazten dute adimen orokorra eta adimen musikala garatzen direla gizabanakoak musikarekin elkarreragiten duen heinean, ekintzak bere esparru kontzeptualarekin lotzen ditu eta esparru sinboliko baten barruan sartzen ditu.

Bestalde, musika hezkuntzak isiltasuna baloratzen du, eta gehiegizko zarata baztertzen du. Isiltasuna eta barneko kontzentrazioa ezinbestekoak dira trebetasun kognitiboak bereganatzeko.

Onura sozialak:

Sozializazioarekin, musika-hezkuntzak funtzio garrantzitsua betetzen du, musikak haurrak asko integratzen dituelako. Musikak txandak egiten, entzuten eta komunikatzen irakasten du. Musikak pentsamendu konbergentearen eta dibergentearen aukera ugari eskaintzen dizkio haurrari, eta soinu-tresna, ahozkoa, gorputzekoa eta emozionala da.

Era berean, garrantzitsua da komunitatean lan egitean, ikusiz eta entzumenez gogoratzea, erraztasunez eta sentikortasunez mugitzea eta harremanetan jartzea, emozioak adieraztea, estresa arintzea eta geure burua entzutea eta konfiantza izanda. Kapazitate guzti horiek, musika sortuz eta musika entzunda hobetzen dira; musika emozioak ateratzeko gai delako eta haurrak helduak bezain gai direlako musikaren zentzu emozionala ulertzeko.

Onura motorrak:

Garapen psikomotorrari dagokionez, soinuaren eta norberaren gorputzaren mugimenduaren aukerak, besteekiko orientazioa, espazio batera edo aldi batera ezagutzea lantzen du musikak. Musikak eta psikomotrizitateak harreman estua daukate; izan ere, heziketa musikalak gorputzaren eta mugimenduaren beharra dauka garatu ahal izateko eta era berean, psikomotrizitateak musika, ahotsaren eta musika-tresnen beharra.

Beste onura batzuk:

Gaitasun linguistikoari dagokionez, zalantzarik gabe, estimulazio musikal egokiak ulermen- eta adierazpen-hizkuntzaren garapena errazten du; garuneko konexio neuronalen kopurua handitu dezake, eta, beraz, ahozko trebetasunak estimulatu. Abestiek izugarri laguntzen dute hizkuntzaren garapenean, eta, bestalde, tresna bikaina dira kontzeptuak finkatzerako orduan.

Musikak matematikan ere onurak izaten ditu; arazo matematikoak ebazterako orduan adibidez edota arrazoiketa konplexuak lantzerako orduan ere.

4.2.2. Musika ikastearen etapak 0-6 urte bitartean

Haur Hezkuntzako I zikloko haurren garapen ebolutibo eta musikalaren ezaugarriak (0-3 urte)

Entzumena amaren baitan hasten da, entzumena enbrioian hasten da garatzen. Musika, soinua eta erritmoa oso erakargarriak eta garrantzitsuak dira jaioberriarentzat; soinuaren edo erritmoaren aurrean gorputzeko lehen mugimenduak egiten baititu. Haurrak musikari eta beste edozein estimulazio akustikori erantzuten dio, posizioa aldatuz.

Bernal eta Calvo-ren ustez (2000) musikak eskuineko hemisferioa estimulaten du (garunaren alderdi artistikoa), garapen motorra errazten du eta negarra baretzen du. Lau hilabete inguruan, haurra bere ahotsari kontsonanteak gehitzen hasten da, eta sei hilabetera, silaba hasiak; totalka izeneko fenomeno. 8 hilabetetik aurrera, zezeltze kanta, bokal batekin edo silaba gutxirekin osatuta, nagusia da. Haurrak jolasteko moduan egiten du. Lehenengo urtetik aurrera, haurrak zirriborro kanta praktikatzeko du, altuera zehatzagoak dituen.

Bizitzako bigarren urtean bere mugimenduak musikara egokitzen hasiko da. Jostailuetan, filmetan, telebistako iragarkietan... entzuten duen musikak erakartzen du haurra. Musika-tresnek arreta deitzen diote: triangeluak, panderoak, kanpaitxoak... Handik aurrera, haurra kapaza da zarata eta musika ezberdintzen. Bigarren urte honetatik aurrera, berezko kanta eramaten du aurrera haurrak; berak gustuko dituen kanta zatiak, esaldiak edo zati laburrak errepikatzen ditu.

Haur Hezkuntzako II zikloko haurren garapen ebolutibo eta musikalaren ezaugarriak (3-6 urte)

3 urterekin, nolabaiteko sinkronizazio motorra lortzen du; musika bat mugitzen edo kolpatzen jarraitu dezake. Hiru edo lau elementuko egitura erritmikoak erreproduzitu ditzake. Abesti txikiak intonazioarekin erreproduzitu ditzake. Beltz eta kortxearen balioak bereizten ditu, eta hainbat melodia simple ezagutzen hasten da.

4 urterekin, gorputzaren mugimendua hobetzen du, bere ahotsa gehiago kontrolatzen du eta eremu melodikoa zorrotzagoa egiten da. Taldean abestiak jorratzen ditu, nolabaiteko afinazioarekin. Besteentzat abestea gustatzen zaio, abesti errazak dramatizatzen ditu eta ahots jokoak edo abestiak asmatzen ditu. Era berean, keinuez osatutako abestiekin gozatzen du. Intentsitatea eta abiadura nahasten ditu, baina azkarra eta motela ezberdindu dezake, eta diskriminazio agudoa eta grabea egin dezake.

5 urterekin, haurren garapen motorrak eskuaren edo oinaren mugimenduak musikarekin sinkronizatzeko aukera ematen du. Jauzi egiten du oin bakar baten gainean, eta musikaren doinuan dantzatzen du erritmikoki. Abesti asko ezagutu eta baloratzen ditu, soinu gutxiko abesti oso errazak sortzeko kapaza da (bereziki Sol, La eta Mi-rekin). Soinuen eta musika-tresnen ordenamenduak eta sailkapenak egin ditzake, eta grafietan adierazitako musika-diktaketak egiteko kapaza da. Musika hizkuntza ulertzen badu, praktikan jartzen du bere ahotsarekin edo musika-tresnekin eta irudimen musikalerako jarrera handia du.

4.2.3. Musika hizkuntza

Musika hizkuntza soinuaren irudikapen grafikoa da. Hizkuntza bat idaztea funtsezkoa da hori aberasteko eta, horrela, hobeto garatzeko.

Musika hizkuntza era ezberdinetan planteatu daiteke Haur Hezkuntzako gela batean. Hemen adibide batzuk ikusiko ditugu.

Soinuaren ezaugarriekin (tinbrea, intentsitatea, altuera eta iraupena) ariketa ezberdinak planteatu ahal ditugu gure gelan. Ariketa horietan ikusmena/entzumena, imitazioa, identifikazioa eta sailkapena erabiltzea interesgarria izan daiteke.

Tinbrea lantzeko, Haur Hezkuntzako bi zikloak ondo bereiztu behar dira, izan ere, oso ariketa ezberdinak planteatu ahal ditugu ziklo bakoitzean. Lehenengo zikloan adibidez, soinu-ingurua, soinu naturalak, ahotsa, gorputz-perkusioa edota eskolako perkusioa erabili dezakegu. Bigarren zikloan aldiz, aurreko guztiak erabiltzeaz gain, musika-tresna profesionalak ere erabili ahal ditugu.

Intentsitatea lantzeko, intentsitate finkoekin eta aldakorrekin moldatuko gara, lehenengo zikloan finkoak erabiliz eta bigarreanean, biak erabiliz.

Altueran ere, intentsitatean erabilitako planteamendu bera egingo dugu, 0-3 urte bitartean altuera finkoak erabiliz eta 3-6 urte bitartean, altuera finkoak eta aldakorrak.

Iraupenari dagokionez, iraupen luzea-laburra erabiliko dugu lehenengo zikloan eta luzea-erdiluzea-laburra bigarren zikloan.

2.urteetik aurrera, beltzak eta kortxeak erabiliko ditugu erritmoa lantzeko eta kantatzeko mi, fa, sol eta la notak. Bigarren ziklotik aurrera, zuria ere gehituko dugu, bai eta eskalan agertzen diren nota guztiak ere. Testurari dagokionez, testura monofonikoa eta doinu lagundua landuko dira lehenengo eta bigarren zikloan.

Forma eta adierazpen musikalari dagokionez, horiek bi lan honen ardatza izanik, lehenengo zikloan “egitura karratuko musikak” erabiliko dira (4,8 edo 16 konpaseko musikak) eta abiadura 80-120 minutuko taupadak erabiliko dira. Bigarren zikloan, “egitura karratuko musikak” erabiltzeaz aparte, forma txikiak ere erabiliko dira eta abiadura aurrekoa baino azkarragoa izango da.

Irakur-idazketa musikala ere landuko da Haur Hezkuntzako etapan horren azkeneko urtean (5-6 urteetik aurrera) landuz gero. Beste hezkuntza guztiekin gertatzen den bezala, irakur-idazketa musikalaren sarrera, Haur Hezkuntzako azken urtean gertatzen da, baina Lehen Hezkuntzako lehenengo urtean bete-betean hasiko da.

4.2.4. Entzumen musikala

Entzumen musikal aktiboa entzutearen eta adi egotearen ekintza da. Hori dela eta, entzunaldi musikal guztien lehenengo fasea entzumena garatzea da, musikaz gozatu ahal izateko, ulertzeko eta hautemateko. Haur bat inguruko soinuez jabetzea eta, ondoren, haiekin gozatzea, haurrak jaio aurretik eta familian, gizartean eta eskolan garatzen ari den bitartean jaso dituen esperientzien eta entzumen-prestakuntzaren mende dago.

Entzumen musikari dagokionez, 3-6 hilabete bitartean hasten dira haurrak musikari entzuten baina entzuketa hori 18 hilabetekin indartu egiten da. Horregatik, interesgarria izan daiteke adin horretatik aurrera entzuketa lantzea ipuin-musikal baten bitartez, adibidez.

Bigarren zikloan, 4-5 urtetik aurrera gertatzen da entzumen-afektibitatea. Hori indartzeko hainbat ariketa planteatu ahal ditugu, hala nola; musika-entzuketa bat, non musika ezberdinen entzuketa aktiboa ezberdina emango da, margolan musikala, non sentimenduak eta emozioak adieraziko dituzten edota musika-diktaketa bat.

4.2.5. Mugimendua eta dantza

Mugimendua eta dantza musika klasean lantzea premiazkoa da, erritmoarekin lotura zuzena baitute. Izan ere, dantzak aintzinako zibilizazioetan garrantzia hartzen zuen eta betidanik musikari lotuta egon da. Hainbat adituren ustez, mugimendua eta dantza protagonista dira musikan, hala nola; Dalcroze-k dantza emozioak gorputz mugimendu erritmatuen laguntzaz adierazteko artea dela aipatu zuen.

Musika eta mugimenduaren arteko sinkronizazioa lantzea garrantzitsua da Haur Hezkuntzan, izan ere, haurrek gorputza baloratzeko, musikaren barne-elementuak ezagutzeko, barne entzumena garatzeko, mugimen-gaitasunak garatzeko...aukera izango dute.

Erritmo musikala eta giza gaitasunak harremanduta daudelarik, jaiotzetik mugitzen da haurra erantzun erritmikoak emanez. Hilabeteak aurrera joan ahala, haurrak mugimendua eta egoera atseginak lotu egingo ditu. Geroago, musika eta mugimenduaren arteko sinkronizazioan aurrerapausuak emango ditu eta horien, 2. urtetik aurrera hobetu egingo dira.

Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik aurrea, haurraren sinkronizazioa hobetuz joan ahala, dantzak ikasteko aukera ezinhobea edukiko du.

4.2.6. Ahotsa eta kantua

Giza ahotsa, komunikatzeko lehendabiziko instrumentua da. Ahots hezkuntzaren arloa ez da soilik abestiak ikastea, askoz zabalagoa da; ahotsaren aukeren aurkikuntza eta esplorazioa, ahots-gaitasunen garapena eta ahots hezkuntzaren ohiturak (arnasa hartzea, artikulazioa, emisioa...) eta talde kantuarekin gozatzea batez ere. Haur hezkuntzako hurrek, elkarrekin abesteko, argitasunez abesten ikasteko eta musika errepertorio zabala entzuteko aukera izan behar dute. Horrek, ondorio positiboak izango ditu ikuspegi kognitiboan, psikologikoan, sozialean eta hizkuntzaren garapenean.

Kantuari esker, hurrek ahotsa baloratu eta ezagutu, musikaren barne-elementuak landu, ahots-teknika eta barne entzumena landu, abesti bilduma ezberdinak ezagutu...ahalko dute.

Argi eduki behar dugu haur kantutegiek izan behar dituzten ezaugarriak, horrela, 0-3 urte bitartean, abestiek hitz argia eta ulergarria eduki behar dute eta errima edukitzea ere, gomendagarria da. Hauek, eguneroko ekintzak, gorputz atalak, animaliak...lantzeko oso aproposak dira. 3-6 urte bitartean aldiz, abestien hitza beste ikasgai batzuekin harremanduta egon daiteke; jaiekin, naturarekin, kontakizunekin...Mugimendu kantak aproposak dira adin honetarako.

4.2.7. Musika-tresnak

Musika tresna soinua sortzeko gai den edozein objektua da. eta musika-tresnak eta haien jatorria aztertzen duen zientzia, Organologia da. Musika-tresnen erabilera garrantzitsua da Haur Hezkuntzako etapan, izan ere, hurrek tinbre ezberdinekin harremana izateko aukera paregabea da.

Gorputz perkusioa oso aproposa izan daiteke Haur Hezkuntzan lantzeko, horrela, 0-3 urte bitartean, eskuak (txalotzeko) edo belaunak (bi eskuekin batera belaunetan jotzeko) erabili ahal dira. 3-6 urte bitartean, hatzak eta oinak ere gehitu ahal ditugu.

Musika-tresnei dagokionez, lehenengo zikloan, lehenengo urtetik aurrera, metalezkoak (txintxirrinak edo kaskabiloak), zurezkoak (klabeak) edota mintzezkoak (panderoa) erabili ahalko ditugu. 2. zikloan, hau da, 3-6 urte bitartean, aukerak zabalagoak dira, metalen barnean: triangelua, txintak, zintzarriak...zurezkoen artean: marakak, kaxa txinatarra..., mintzezkoen artean: tinbalak eta bongoak eta xaflazkoen artean: xilofonoak, metalofonoak edo karriloak (5 urtetik aurrera hobeto) gehituz.

5. MARKO ENPIRIKOA: PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

5.1. SARRERA

Hona hemen Gradu Amaierako Lan honen proposamen didaktikoa. Txosten honen ardatza entzuketa musikala eta bereziki, *Forma eta Adierazpen musikala* izanda, horiek Haur Hezkuntzako bigarren etapako azkenengo urteetan (4-5 urte) jorrazteko hainbat ariketen proposamena aurkitu ahalko dugu, beti ere, jarduera guzti hauek haurren adinera egokituta.

Beraz, adierazpen- eta forma-musikala lantzeko 8 jarduerekin egingo dugu topo, non musikaren alderdi hauek lantzeaz aparte, haurren gozamena eta jokia ere presente egongo diren. Horien artean; margolan musikala, ipuin musikala, koreografia txikiak...aurkitu ahalko ditugu.

5.2. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN HELBURUAK

5.2.1. Helburu orokorrak

1. Norberaren sentimenduak eta emozioak ezagutu eta horietaz jabetu, horiek guztiak komunikatzeko, adierazteko eta, beste pertsonen sentimenduak ere ulertzeko.
2. Hizkuntza ezberdinen komunikazio-tresnak lortzea eta tresna horiekin gozatzea, norberaren egoera fisiko eta sozialeko beharrianak, sentimenduak eta bizipenak transmititzeko.
3. Arte-produkzioetan (besteak beste, musikaren eta, gorputzaren bidez sortutako produkzioetan) parte hartzea, teknikak ezberdinak erabiliz, komunikazioa lantzeko eta kultura bera ulertzen hasteko.

5.2.2. Helburu espezifikoak

1. Forma-musikal bitarra ezagutzea eta lantzea
2. Emozioak musikaren bitartez adierazten ikastea eta musikaren eduki adierazkorra lantzea
3. Genero musikal batzuetara gerturatzea: herrikoa, klasikoa eta modernoa
4. Eskolako musika-tresna batzuk ezagutzea eta manipulatzeko
5. Mundu-musikala eta musikak haurren bizitzaren egunerokotasunean duen garrantzia baloratzea

5.3. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN EDUKIAK

5.3.1. Eduki kontzeptualak

- Forma musikal bitarra: A/B.
- Musikaren eduki adierazkorra.
- Genero musikal batzuk: klasikoa, modernoa eta herrikoia.
- Eskolako perkusiozko musika-tresna batzuk.

5.3.2. Prozedurazko edukiak

- Forma musikal bitarra ezagutu eta menperatu: A/B.
- Musika genero ezberdinekin esperimentatu.
- Emozioak musikaren bitartez maneiatu eta musikaren eduki adierazkorra landu.
- Eskolako perkusiozko musika-tresna batzuk ezagutu.

5.3.3. Jarrerazko edukiak

- Musikarekiko interesa erakutsi.
- Planteatutako ariketetan gogotsu parte hartu.
- Ikaskideak errespetatu.
- Arauak errespetatu.
- Gelako materiala zaindu.

5.4. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN ORIENTABIDE METODOLOGIKOAK

5.4.1. Planteamendu metodologikoa orokorra

Unitate didaktiko honek 8 ariketa ditu. Ariketa horietan, bi musika-kontzeptu landuko dira: forma eta adierazpen musikala. Jarduera guzti horietan, estilo musikal ezberdineko abestiak erabiliko dira, estilo musikal ezberdinen ezagupena bermatzeko. Honako hauek izango dira erabiliko diren obrak: Camille Saint-Saëns-ena “El carnaval de los animales” (Flamingos from fantasia 2000), Elvis Presley-ren “Jailhouse Rock” a eta “Zazpi Jauzi” abesti herrikoia.

Jarduera horiek Haur Hezkuntzako bigarren etapari bideratuta daude (4 eta 5 urte) eta ikastola bateko musika gelan burutzeko planteatuta daude.

Unitate didaktiko hau, hilabete batean (4 aste) egiteko planteatu da, izan ere, astean bitan (astelehenetan eta ostegunetan) izaten dute hurrek musika klasea, beraz, ariketa bat klase bakoitzean landuko da.

Ondorengo puntuan ariketak azalduko dira eta argiago ikusteko, eranskinetan ariketa bakoitzeko taula bat aurkitu ahalko dugu, deskribapena, materialak eta baliabideak eta espazioa eta denbora zehaztuz.

5.4.2. Jarduera zerrenda

(Jardueren taulak V. eranskinean)

LEHENENGO ASTEA: CAMILLE SAINT-SAËNS (EL CARNAVAL DE LOS ANIMALES, FLAMINGOS)

1. Jarduera: Margolan musikala.

Jarduera honetan Saint-Saëns-en “El carnaval de los animales” (Flamingos, Carnival of the animals, finale) obra erabiliko da margolan musikala bat egiteko. Hurrek 3 aldiz entzungo dute obra: 1. aldian motibatzeke. 2. aldian margolanari ekiteko eta 3. aldian sakontze lana egiteko (margolana bukatu).

2. Jarduera: Txartelak gora!

“El carnaval de los animales” erabiliko da beste behin ariketa hau burutzeko. Honetan ere, kantaren forma (A/B) ezberdinduko dute hurrek.

Haurrak bi taldeetan banatuko dira A eta B taldeak. A zatia entzuterakoan, A taldeak bere txartel gorria altxatuko du eta B zatia entzuterakoan, B taldeak txartel berdea altxatuko du. Ariketa hiru aldiz errepikatuko da.

BIGARREN ASTEA: ELVIS PRESLEY (JAILHOUSE ROCK)

3. Jarduera: Ekaitzaren festa.

Jarduera honetan ipuin musikal bat kontatuko zaie umeei. Istorioa sortzeko, musika-tresna ezberdinak erabiliko dira; danborra, kaskabiloa eta carriloia. Horretaz aparte, “Jailhouse Rock” abestia entzuteko aukera izango dugu. Ipuina bi aldiz irakurriko da; lehenengo aldiak irakasleak kontatu eta musika-tresnak joko ditu. Bigarren aldiak, irakasleak ipuina kontatu eta umeei musika-tresnak jotzeko aukera izango dute.

(Ipuina VI. eranskinean aurkituko dugu)

4. Jarduera: Rock-aren trena.

Jarduera honetarako Elvis Presley-ren “Jailhouse Rock” kanta erabiliko da bere forma (A/B) ezagutzeko.

Bi ilara edo tren sortuko dira. Lehenengo ume ilara, A zatia entzuterakoan mugituko da eta bigarrena trena, B zatian mugituko da. Ariketa hiru aldiz errepikatuko da.

HIRUGARREN ASTEA: HERRIKOIA (ZAZPI JAUZI)

5. Jarduera: Asanblea musikala.

“Zazpi-Jauzi” abesti herrikoia entzungo dugu honetan. Obra hiru aldiz entzun eta gero (hurrek gogoeta lana egiteko) indioak bezala eserita borobil batean elkartuko gara eta lehenengo entzunaldia eta gero honako galdera hau egingo diegu hurrei: “*Zer sentitu duzue kanta entzuterakoan?*”. Bigarren entzunaldia eta gero honako galdera hau egingo diegu hurrei: “*Zer gogoratu duzue kanta entzuterakoan?*”.

6. Jarduera: Gure dantza sortzen.

“Zazpi Jauzi” abesti herrikoia erabiliko da oraingo honetan. Haurren kanta honen bi zatiak (A/B) bereizteko gorputzaren mugimenduaz lagunduko dira.

A zatian, txaloak emango dituzte eta gelatik ibiltzen mugituko dira eta B zatian aldiz, eskuak belauen gainean kolpatuko dituzte. Ariketa hiru aldiz errepikatuko da.

LAUGARREN ASTEA. ORAIN ARTE ENTZUNDAKO HIRU OBRAK
LANDUKO DITUGU

7. Jarduera: Pozik, triste, haserre edo beldurtuta?

Arestian aipatutako hiru abestiak erabiliko dira jarduera honetarako. Haurrek hiru aldiz entzungo dituzte kantak. Entzun ondoren, emozio ezberdinak adierazten dituen orri bana banatuko zaie eta haiek gomets bat jarriko dute abestiak entzun bitartean identifikatuta sentitu diren emozioari.

Bukatzeko, entzundako hiru abestietatik zein izan duten gustukoena galdetuko zaie.

(Erabiliko den orriaren adibidea VII. eranskinean aurkituko dugu)

8. Jarduera: Hodeia eta Eguzkia.

Ariketa honetarako arestian landutako hiru obrak erabiliko dira. Kanta horien forma bitarra (A/B) bereiziko dute haurrek ekintza honetan.

Horretarako, orri bana banatuko zaie umeei. Orri honetan (orria VIII. eranskinean aurkituko dugu), bi marrazki ezberdin aurkituko ditugu: Eguzkia eta hodeia. Eguzkia kantaren A zatiari dagokio eta hodeia aldiz, B zatiari.

Haurrek, abestian zehar, behatza irudi ezberdinen gainetik pasatu beharko dute A edo B zatia entzuterakoan.

Laugarren astearen amaieran genero musikalen inguruan hitz egingo dugu arestian entzundako hiru abestiak aprobetxatuz, horietako bakoitza genero batekoa izanda. Horrela, abesti herrikoak, klasikoak eta modernoak landuko ditugu.

Horretaz aparte, hiru abestien bideoak ere ikusiko ditugu gelan hurrek horiek konpara ditzaten. Hona hemen bideoen helbideak:

- Camille Saint-Saëns (El carnaval de los animales Flamingos): <https://www.youtube.com/watch?v=OvPjtolajZk>
- Elvis Presley (Jailhouse Rock): <https://www.youtube.com/watch?v=gj0Rz-uP4Mk>
- Herrikoia (Zazpi Jauzi): <https://www.youtube.com/watch?v=J9fM74YOAEC>

5.5. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAN ERABILITAKO EBALUAZIOA

5.5.1. Ebaluazio-motak

Proposamen didaktiko honetan aurrera eramango den ebaluazioa hiru motatakoa izango da; hasierako ebaluazioa, jarraia da eta azkena. Hasieran umeek dakitena aztertuko dugu, jarduerak egin bitartean nolako jarrera eduki dugun eta amaieran dakiguna edo ikasi duguna.

5.5.2. Ebaluazio-tresnak

Ebaluaketa aurrera eramateko, prozesua ebaluatuko denez, behaketa izango da ebaluazio-tresnarik garrantzitsuena. Hasieratik behaketa martxan jarriko da, amaierararte, haurren ekintzetan eta jarreretan oinarrituz.

Beste alde batetik, jarduera batzuetan, 2. eta 10. jardueretan adibidez, orri batzuk erabiliko dira ariketak burutzeko. Kasu horietan, orri horiek ere lagin bezala hartuko dira.

5.5.3. Ebaluazio-irizpideak

- Ea forma bitarra ulertu duten.
- Ea oinarrizko emozioak barneratu dituzten.
- Ea gelan landutakoa ulertu duten (forma eta adierazpena).
- Ea prozesuan barneratu eta sartu diren.
- Ea gogotsu eta jarrera onean parte hartu duten.
- Ea musikarekin gozatu eta ongi pasatu duten.
- Ea arretaz entzun duten.
- Ea klasekideak errespetatu diren.

6. AZKEN BALORAZIOA ETA ONDORIOAK

Gradu Amaierako Lanaren gaia aukeratzeko orduan, hasieratik nahiko argi izan dudala esan dezaket. Izan ere, txikitatik harreman estua izan dut musikarekin eta arte horrek nire sorkuntza eta eraikuntza pertsonalean izan dituen onurak gertutik ikusi izan ditut.

Musikarekin hain lotura handia izanda, urteak pasatu ahala horrek hezkuntza sisteman eduki duen gabeziak ohartu naiz, ikasketetan aurrera egin ahala eta atera diren legeen ondorioz, musikak garrantzia galdu duela argi ikusi dut. Horregatik, musika adin goiztiarretan, hezkuntzan gehitzearen inportantzia azpimarratzeko ere balio izan dit lan honek, arestian aipatu bezala, asko direlako musikak haurrengan eragiten dituen onurak.

Haur Hezkuntzako gradu osoan zehar praktikaldi egun ugari eduki ditugu gure etorkizuneko lanbidea gertutik ezagutzeko. Practicum horietan nahiz eta nahiko nukeen baino musika gutxiago entzun dudana, entzundako gutxi hori urteetan ez dela aldatu ikusi dut, bai eta musika berdina entzuten dela Euskal Herriko eskola gehienetan ere. Horregatik, errepertorioa handitu behar dela iruditzen zait; haurrei musika genero ezberdinak entzuteko eta horiekin gozatzeko aukera eman behar zaiela uste dut. Askotan, musikako irakasle askok haurrekin musikaren hainbat alderdi lantzerako orduan zalantza handiak dituztela ikusi izan dut, horrela izanda, musikaren forma eta adierazpena lantzeko hainbat adibide plazaratu izan ditut txosten honetan, haien lagungarriak izan daitezkeen.

Nire buruaren inguruko balorazio bat eginez, lana egiten oso gustura sentitu naizela esan beharra daukat, gaiarekiko gertutasunagatik edota gaiarekiko interesagatik izan daitekela uste dut. Egia da informazio ugari bilatu eta horren inguruan ikertu behar izan dudala baina guzti horrek nire ezagutza musikala aberastu duela argi ikusten dut. Mundu honetan murgildu izanaz oso harro nago, bai eta musikak Haur Hezkuntzarekin duen lotura ezagutzeaz ere. Aipatzekoa da ere lan honetan zuzendaria izan dudana Txomin Garcia de La Torre-ren laguntza eta babesa.

Ondorio gisa, Gradu Amaierako Lan honetan ikasi dudana guztia etorkizunean praktikara eramatea espero dut, haurren entzumen musikala baloratuz eta hobetuz. Era berean, txosten hau norbaitek irakurri gero, musikaren garrantziaz kontzientzia sortzea espero dut, hain gutxietsita dagoen mundu hau zabaldu ahal izatea eta dagokion garrantzia ematea.

7. BIBLIOGRAFIA ETA INTERNETGRAFIA

1/1990 lege organikoa: http://www.madrid.org/dat_este/legislacion/logse.pdf

1/1990 lege organikoa: <https://www.boe.es/boe/dias/1990/10/04/pdfs/A28927-28942.pdf>

2/2006 lege organikoa: <https://www.boe.es/buscar/pdf/2006/BOE-A-2006-7899-consolidado.pdf>

8/2013 lege organikoa: <https://www.boe.es/buscar/pdf/2013/BOE-A-2013-12886-consolidado.pdf>

14/1970 lege: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1970-852>

237/2015 dekretua:

<https://www.euskadi.eus/y22bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf>

(2013). Martín Lutero y la música en el Renacimiento. *Camino de música*. Webgune honetatik berreskuratuta: <https://caminodemusica.com/renacimiento/martin-lutero-y-la-musica-en-el-renacimiento>

B Viñas, S.(2015). La música en Mesopotamia. Cuaderno de música. Webgune honetatik berreskuratuta: <http://corcheasycorcheas.blogspot.com/2015/09/la-musica-en-mesopotamia.html>

Bastus, J. (1862). El cómo, el cuándo y la razón de las cosas. *El trivio y el Cuadrivio o la nueva enciclopedia*. pp 5 y 6. Barcelona.

Bofill Mones, M. (2014). La música de la antigua Roma. Arraona Romana, un proyecto de difusión de la cultura clásica romana. Webgune honetatik berreskuratuta: <https://arraonaromana.blogspot.com/2014/03/la-musica-de-la-antigua-roma.html>

Cabrelles, M^a S. El desarrollo evolutivo infantil y el juego en la educación musical. Webgune honetatik berreskuratuta: http://www.docenotas.com/pdf/desarrollo_evolutivo_infantil.pdf

Caro, M. (2017). El método Dalcroze y la importancia de la música. *Red Música Maestro*. Webgune honetatik berreskuratuta: <https://redmusicamaestro.com/metodo-dalcroze-y-la-ritmica/>

Carrión Crespo, M V. (2013). *La educación musical en el Clasicismo*. Webgune honetatik berreskuratuta: <https://prezi.com/gmahhyuqfunf/la-educacion-musical-en-el-clasicismo/>

Cristina, A. (2009). Enseñanza musical en el Renacimiento y Barroco. El aula musical de Adriana. Webgune honetatik berreskuratuta: <http://aulamusicaldeadriana.blogspot.com/2009/10/ensenanza-musical-en-el-renacimiento-y.html>

Federación de Enseñanza de CC.OO. de Andalucía. (2009). Métodos pedagógico - Musicales para Secundaria. *Temas para la Educación*. (3), p 9

Figueroba, A. ¿Que es el Efecto Mozart? ¿Nos hace más inteligentes? *Psicología y mente*. Webgune honetatik berreskuratuta: <https://psicologiymente.com/desarrollo/efecto-mozart>

Fontecilla, P eta Vial, B. (2012). Murray Schaffer y cómo enseñar música a los pequeños. Educación Artística. Webgune honetatik berreskuratuta: <http://didacticademusica2012.blogspot.com/2012/05/murray-schafer-y-como-enseñar-musica.html>

García, Rodríguez, E. (2004). Posibles beneficios del aprendizaje musical significativo en el desarrollo global del niño de entre 4 y 6 años con deficiencia visual o cieguera. *Revista de Psicodidáctica*. (17), pp 1,2,3,5

García de la Torre Rey, T. "Musika II". Haur Hezkuntzako Gradua. Euskal Herriko Unibertsitatea. Vitoria-Gasteiz. 2019-2020. Argitaratu gabe.

Ibarra, D. (2012). Pedagogía musical. Educación musical II. Webgune honetatik berreskuratuta: <http://educacionmusicali.blogspot.com/2012/05/pedagogia-musica.html>

La música en el Clasicismo. *Historia de la música*6º. Google sites. Webgune honetatik berreskuratuta: <https://sites.google.com/site/historiadela musica60/la-musica-en-el-clasicismo>

Lago Castro, P eta Gonzales, J. (2012). El pensamiento del solfeo dalcroziano, mucho más que rítmica. *Revista de la Facultad de Educación de Albacete*, (27), pp 89-91

Martín García, M. La música en el Antiguo Egipto. Webgune honetatik berreskuratuta:
<http://www.jimena.com/egipto/apartados/musica2.htm#pite>

Método Kodály. *Pedagogía musical*. Webgune honetatik berreskuratuta:
<https://sites.google.com/site/pedagogiamusi/m/metodo-kodaly>

Método Martenot. *Pedagogía musical*. Webgune honetatik berreskuratuta:
<https://sites.google.com/site/pedagogiamusi/m/metodo-martenot>

Método Orff. *Pedagogía musical*. Webgune honetatik berreskuratuta:
<https://sites.google.com/site/pedagogiamusi/m/metodo-orff>

Método Suzuki. *Pedagogía musical*. Webgune honetatik berreskuratuta:
<https://sites.google.com/site/pedagogiamusi/m/metodo-suzuki>

Método Ward. *Pedagogía musical*. Webgune honetatik berreskuratuta:
<https://sites.google.com/site/pedagogiamusi/m/metodo>

Método Willems. *Pedagogía musical*. Webgune honetatik berreskuratuta:
<https://sites.google.com/site/pedagogiamusi/m/metodo-willems>

Miramontes, L. (2016). El ritmo en la música y la danza: su función como organizador.
Ruthmos

Mora Chinchilla, O. La música en el Renacimiento. Música Renacentista. *Edicación musical C.T.P. Bataan*. Webgune honetatik berreskuratuta:
<http://edmusicalctpbataan.weebly.com/el-renacimiento.html>

Olmedo Medina, M^a A. (2007). La audición musical activa. *Filomusica*. (82)

Ortiz Pereira, D. (2017). Poesía y música en la consolidación de la filosofía de Boecio.
Revista Española de filosofía medieval, (24), pp 35-53

Pascual Mejía, P. (2006). *Didáctica de la Música para Educación Infantil*. Pearson: Madrid

Patricia Shehan Campbell. Wikipedian. Webgune honetatik berreskuratuta:
https://en.wikipedia.org/wiki/Patricia_Shehan_Campbell

Rodrigo, M. (2015). La música a lo largo de la historia de la educación. *Música y Educación*. Webgune honetatik berreskuratuta: <https://mar-rodrigo.blogspot.com/2015/07/la-musica-lo-largo-de-la-historia-de-la.html>


Rolda, M J. (2018). Que es el método Decroly. *Etapa Infantil*. Webgune honetatik berreskuratuta: <https://www.etapainfantil.com/metodo-decroly>

Rosado Rodriguez, M^a Soledad. (2017-2018). *La importancia de la educación musical en el sistema educativo español en la etapa de educación primaria*. (Trabajo Fin de Grado). Facultad de ciencias de la educación. Universidad de Sevilla.


Villena, Ramirez, M I, Vicente Guillen, A, Vicente Villena, M P. (1998). Pedagogía musical activa. Corrientes contemporáneas. *Anales de pedagogía*,(16), pp 102-104

8. ERANSKINAK

I. Eranskina: Kodalyren fononimia



II. Eranskina: Swanwick-en espiral metodoa.



III. Eranskina:Espainiako Legeak.

LGE (1970)		
<u>Educación Preescolar</u>	<u>Educación General Básica</u>	<u>Bachillerato</u>
<p>Artículo 14:</p> <p>La educación preescolar comprende juegos, actividades de lenguaje, incluida, en su caso, la lengua nativa, expresión rítmica y plástica, observación de la naturaleza, ejercicios lógicos y prenuméricos, desarrollo del sentido comunitario, principios religiosos y actitudes morales.</p>	<p>Artículo 16:</p> <p>En la Educación General Básica, la formación se orientará a la adquisición, desarrollo y utilización funcional de los hábitos y de las técnicas instrumentales de aprendizaje (...) a la iniciación en la apreciación y expresión estética y artística y al desarrollo del sentido cívico-social y de la capacidad físico-deportiva.</p>	<p>Artículo 24:</p> <p>Las materias comunes serán impartidas en las siguientes áreas: (...) b) Formación estética, con especial atención a Dibujo y Música."</p>

LOGSE (1990)	
<u>Artículo 3</u>	(...) 3. Son enseñanzas de régimen especial las siguientes: a) Las enseñanzas artísticas .
<u>Artículo 13</u>	La educación primaria contribuirá a desarrollar en los niños las siguientes capacidades: (...) f) Utilizar los diferentes medios de representación y expresión artística .
<u>Artículo 14</u>	1. La educación primaria comprenderá tres ciclos de dos cursos académicos cada uno y se organizará en áreas que serán obligatorias y tendrán un carácter global e integrador. 2. Las áreas de este nivel educativo serán las siguientes: (...) b) Educación Artística .
<u>Artículo 19</u>	La educación secundaria obligatoria contribuirá a desarrollar en los alumnos las siguientes capacidades: (...) e) Conocer, valorar y respetar los bienes artísticos y culturales.
<u>Artículo 20</u>	1. La educación secundaria obligatoria constará de dos ciclos, de dos cursos cada uno, y se impartirá por áreas de conocimiento. 2. Serán áreas de conocimiento obligatorias en esta etapa las siguientes: (...) h) Música .
<u>Artículo 26</u>	El bachillerato contribuirá a desarrollar en los alumnos las siguientes capacidades: (...) h) Desarrollar la sensibilidad artística y literaria como fuente de formación y enriquecimiento cultural.
<u>Artículo 27</u>	1. El bachillerato se organizará en materias comunes, materias propias de cada modalidad y materias optativas. (...) 3. Las modalidades de bachillerato serán como mínimo las siguientes: - Artes .
<u>Artículo 38</u>	Las enseñanzas artísticas tendrán como finalidad proporcionar a los alumnos una formación artística de calidad y garantiza la cualificación de los futuros profesionales de la música , la danza, el arte dramático, las artes plásticas y el diseño.

<p><u>Artículo 39</u></p>	<p>1. Las enseñanzas de música y danza comprenderán tres grados:</p> <p>a) Grado elemental, que tendrá cuatro años de duración.</p> <p>b) Grado medio, que se estructurará en tres ciclos de dos cursos académicos de duración cada uno.</p> <p>c) Grado superior, que comprenderá un solo ciclo cuya duración se determinará en función de las características de estas enseñanzas.</p> <p>2. Los alumnos podrán, con carácter excepcional, y previa orientación del profesorado, matricularse en más de un curso académico cuando así lo permita su capacidad de aprendizaje.</p> <p>3. Para ejercer la docencia de las enseñanzas de régimen especial de música y danza será necesario estar en posesión del título de Licenciado, Ingeniero o Arquitecto, o titulación equivalente, a efectos de docencia, y haber cursado las materias pedagógicas que se establezcan (...)</p> <p>5. Con independencia de lo establecido en los apartados anteriores, podrán cursarse en escuelas específicas, sin limitación de edad, estudios de música o de danza (...)</p>
<p><u>Artículo 40</u></p>	<p>1. Para el grado elemental de las enseñanzas de música y danza podrán establecerse por parte de las Administraciones educativas criterios de ingreso que tendrán en cuenta, entre otras circunstancias, la edad idónea para estas enseñanzas.</p> <p>2. Para acceder al grado medio de las enseñanzas de música y danza será preciso superar una prueba específica de acceso. (...)</p> <p>3. Se accederá al grado superior de las enseñanzas de música y danza si se reúnen los siguientes requisitos:</p> <p>a) Estar en posesión del título de Bachiller.</p> <p>b) Haber aprobado los estudios correspondientes al tercer ciclo de grado medio.</p> <p>c) Haber superado la prueba específica de acceso que establezca el Gobierno, en la cual deberá demostrar el aspirante los conocimientos y habilidades profesionales necesarios para cursar con aprovechamiento las enseñanzas correspondientes.</p>
<p><u>Artículo 41</u></p>	<p>1. Las Administraciones educativas facilitarán al alumnado la posibilidad de cursar simultáneamente las enseñanzas de música o danza y las de régimen general (...)</p> <p>2. Los alumnos que hayan terminado el tercer ciclo de grado medio obtendrán el título de Bachiller si superan las materias comunes del bachillerato.</p>
<p><u>Artículo 42</u></p>	<p>(...)</p> <p>2. La superación del tercer ciclo del grado medio de música o danza dará derecho al título profesional de la enseñanza correspondiente.</p>

LOE (2006)	
CAPÍTULO I Educación infantil	<u>Artículo 13. Objetivos.</u> g) Iniciarse en las habilidades lógico-matemáticas, en la lecto-escritura y en el movimiento, el gesto y el ritmo.
CAPÍTULO II Educación primaria	<p style="text-align: center;"><u>Artículo 17. Objetivos de la educación primaria.</u></p> j) Utilizar diferentes representaciones y expresiones artísticas e iniciarse en la construcción de propuestas visuales y audiovisuales. <p style="text-align: center;"><u>Artículo 18. Organización.</u></p> 3. Los alumnos y alumnas deben cursar las siguientes áreas del bloque de asignaturas específicas en cada uno de los cursos: (...) <p style="text-align: center;">c) En función de la regulación y de la programación de la oferta educativa que establezca cada Administración educativa y, en su caso, de la oferta de los centros docentes, al menos una de las siguientes áreas del bloque de asignaturas específicas: 1.º Educación Artística</p>
CAPÍTULO III Educación secundaria obligatoria	<p style="text-align: center;"><u>Artículo 23. Objetivos.</u></p> l) Apreciar la creación artística y comprender el lenguaje de las distintas manifestaciones artísticas , utilizando diversos medios de expresión y representación. <p style="text-align: center;"><u>Artículo 24. Organización del primer ciclo de Educación Secundaria Obligatoria.</u></p> 6. Los alumnos y alumnas deben cursar las siguientes materias del bloque de asignaturas específicas: c) En función de la regulación y de la programación de la oferta educativa que establezca cada Administración educativa y, en su caso, de la oferta de los centros docentes, un mínimo de una y, máximo de cuatro, de las siguientes materias del bloque de asignaturas específicas (...): 4.º Música. <p style="text-align: center;"><u>Artículo 25. Organización de cuarto curso de Educación Secundaria Obligatoria.</u></p> c) En función de la regulación y de la programación de la oferta educativa que establezca cada Administración educativa y en su caso de la oferta de los centros docentes, un mínimo de una y máximo de cuatro materias de las siguientes del bloque de asignaturas específicas: 6.º Música.

<p>CAPÍTULO IV Bachillerato</p>	<p style="text-align: center;"><u>Artículo 33. Objetivos.</u></p> <p>l) Desarrollar la sensibilidad artística y literaria, así como el criterio estético, como fuentes de formación y enriquecimiento cultural.</p> <p style="text-align: center;"><u>Artículo 34 bis. Organización del primer curso de Bachillerato.</u></p> <p>4. Los alumnos y alumnas deben cursar las siguientes materias del bloque de asignaturas específicas:</p> <p style="margin-left: 40px;">a) Educación Física.</p> <p style="margin-left: 40px;">b) En función de la regulación y de la programación de la oferta educativa que establezca cada Administración educativa y, en su caso, de la oferta de los centros docentes, un mínimo de dos y máximo de tres materias de entre las siguientes:</p> <p style="margin-left: 80px;">1.º Análisis Musical I.</p> <p style="text-align: center;"><u>Artículo 34 ter. Organización del segundo curso de Bachillerato.</u></p> <p style="text-align: center;">(...)</p> <p>4. En función de la regulación y de la programación de la oferta educativa que establezca cada Administración educativa y, en su caso, de la oferta de los centros docentes, los alumnos y alumnas cursarán un mínimo de dos y máximo de tres materias de las siguientes del bloque de asignaturas específicas:</p> <p style="margin-left: 40px;">a) Análisis Musical II</p>
<p>CAPÍTULO VI Enseñanzas artísticas</p>	<p>1. Las enseñanzas artísticas tienen como finalidad proporcionar al alumnado una formación (...) de la música, la danza, el arte dramático, las artes plásticas y el diseño.</p> <p style="margin-left: 40px;">2. Son enseñanzas artísticas las siguientes:</p> <p style="margin-left: 80px;">a) Las enseñanzas elementales de música y de danza.</p> <p style="margin-left: 80px;">b) Las enseñanzas artísticas profesionales. Tienen esta condición las enseñanzas profesionales de música y danza (...)</p> <p style="margin-left: 80px;">c) Las enseñanzas artísticas superiores. Tienen esta condición los estudios superiores de música y de danza (...)</p> <p style="margin-left: 40px;">Sección primera. Enseñanzas elementales y profesionales de música y de danza.</p> <p style="text-align: center;"><u>Artículo 48. Organización.</u></p> <p>1. Las enseñanzas elementales de música y de danza tendrán las características y la organización que las Administraciones educativas determinen.</p> <p style="margin-left: 40px;">2. Las enseñanzas profesionales de música y de danza se organizarán en un grado de seis cursos de duración. (...)</p>

3. (...) **podrán cursarse estudios de música o de danza que no conduzcan a la obtención de títulos con validez académica o profesional en escuelas específicas, con organización y estructura diferentes y sin limitación de edad (...)**

Artículo 49. Acceso.

Para acceder a las enseñanzas profesionales de música (...) **preciso superar una prueba específica de acceso** regulada y organizada por las Administraciones educativas (...)

Artículo 50. Titulaciones.

1. **La superación de las Enseñanzas Profesionales de Música o de Danza dará derecho a la obtención del título de Técnico correspondiente.**

2. El alumnado que se encuentre en **posesión de un título de Técnico de las Enseñanzas Profesionales de Música o de Danza podrá obtener el título de Bachiller** por la superación de la evaluación final de Bachillerato (...)"

LOMCE (2013)	
Artículo 24.	<p style="text-align: center;">Organización del primer ciclo de Educación Secundaria Obligatoria. (...)</p> <p style="text-align: center;">4. Los alumnos y alumnas deben cursar las siguientes materias del bloque de asignaturas específicas en cada uno de los cursos: (...)</p> <p style="text-align: center;">c) En función de la regulación y de la programación de la oferta educativa que establezca cada Administración educativa y, en su caso, de la oferta de los centros docentes, un mínimo de una y, máximo de cuatro, de las siguientes materias del bloque de asignaturas específicas, que podrán ser diferentes en cada uno de los cursos:</p> <p style="text-align: center;">4.º Música.</p>
Artículo 25	<p style="text-align: center;">Organización de cuarto curso de Educación Secundaria Obligatoria</p> <p style="text-align: center;">6. Los alumnos y alumnas deben cursar las siguientes materias del bloque de asignaturas específicas: (...)</p> <p style="text-align: center;">c) En función de la regulación y de la programación de la oferta educativa que establezca cada Administración educativa y en su caso de la oferta de los centros docentes, un mínimo de una y máximo de cuatro materias de las siguientes del bloque de asignaturas específicas:</p> <p style="text-align: center;">6.º Música.</p>
Artículo 34 bis.	<p style="text-align: center;">Organización del primer curso de Bachillerato. (...)</p> <p style="text-align: center;">4. Los alumnos y alumnas deben cursar las siguientes materias del bloque de asignaturas específicas: (...)</p> <p style="text-align: center;">b) En función de la regulación y de la programación de la oferta educativa que establezca cada Administración educativa y, en su caso, de la oferta de los centros docentes, un mínimo de dos y máximo de tres materias de entre las siguientes: (...)</p> <p style="text-align: center;">1.º Análisis Musical I. 6.º Lenguaje y Práctica Musical.</p>
Artículo 34 ter.	<p style="text-align: center;">Organización del segundo curso de Bachillerato.</p> <p style="text-align: center;">4. En función de la regulación y de la programación de la oferta educativa que establezca cada Administración educativa y, en su caso, de la oferta de los centros docentes, los alumnos y alumnas cursarán un mínimo de dos y máximo de tres materias de las siguientes del bloque de asignaturas específicas</p> <p style="text-align: center;">a) Análisis Musical II. g) Historia de la Música y de la Danza.</p>

Artículo 44	<p>Títulos y convalidaciones.</p> <p>6. El Gobierno regulará el régimen de convalidaciones y equivalencias entre los ciclos formativos de grado medio y superior de la Formación Profesional y el resto de enseñanzas y estudios oficiales, oídos los correspondientes órganos colegiados.</p>
Treinta y nueve.	<p>El apartado 1 del artículo 46 queda redactado de la siguiente manera:</p> <p>«1. La superación de las Enseñanzas Profesionales de Música o de Danza dará derecho a la obtención del título de Técnico correspondiente.</p> <p>2. El alumnado que se encuentre en posesión de un título de Técnico de las Enseñanzas Profesionales de Música o de Danza podrá obtener el título de Bachiller(...)</p> <p>Cuarenta y uno. El apartado 2 del artículo 53 queda redactado de la siguiente manera:</p> <p>«3. Los alumnos y alumnas que hayan terminado los estudios superiores de Música o de Danza obtendrán el título Superior de Música o Danza en la especialidad de que se trate (...)</p>
Cincuenta y seis.	<p>El apartado 5 del artículo 69 queda redactado de la siguiente manera:</p> <p>«5. (...) La edad mínima de acceso a los Estudios superiores de música o de danza será de dieciséis años.»</p>

IV. Eranskina: Heziberri

HEZIBERRI 2020	
1.– OINARRIZKO KONPETENTZIAK	2.– NORTASUNAREN ERAIKUNTZAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN ETA ADIERAZPENAREN EREMUA
<p>Honako oinarrizko konpetentzia espezifiko hauek landuko dituzte haurrek «Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagutza» eta «Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena» esperientzia-eremuen bidez:</p> <p>(...)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arterako konpetentzia. 	<p>2.1.– EREMUAREN EZAUGARRIAK</p> <p>Honako hizkuntza hauek baliatzen dira eremuan: hitzezkoa, idatzizkoa, artistikoa, gorputzarena, matematika-hizkuntza, musika-hizkuntza, ikus-entzunezkoa eta ikaskuntzaren eta ezagutzaren teknologiena.</p> <p>Musika-hizkuntzaren bidez, hainbat ahalmen lantzen dira; hala nola, pertzepzioa, erritmoa eta kantua, soinudun objektuen eta tresnen erabilera, gorputzaren mugimendua, eta entzute arretatsuak, probek, eskuen erabilerak eta soinuekin eta musikarekin egiten diren jolasek dakarten sormena.</p>
<p>1.2.– Oinarrizko konpetentzia espezifikoak.</p> <p><u>Arterako konpetentzia.</u></p> <p>(...)kultura ezagutzeko, ulertzeko eta balioesteko bidea egiten da; (...) irudimena eta fantasia elikatzeke, abestiak, dantzak, mugimenduak eta adierazpenak interpretatzeko jarrera lantzen baldin bada eta bertako eta beste herrialde batzuetako adierazpen artistiko eta kulturalekiko interesa eta jakin-mina pizten baldin badira.</p> <p>Oinarrizko konpetentzia espezifikoaren korrespondentzia Haur Hezkuntzako eremuekin eta Lehen Hezkuntzako arloekin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaiekin.</p>	<p>2.2.– ETAPAKO HELBURUAK</p> <p>10) Arte-produkzioetan (ikus-entzunezkoen, teknologiararen, antzerkiaren, musikaren eta, besteak beste, gorputzaren bidez sortutako produkzioetan) parte hartzea, askotariko teknikak erabilia, komunikazio-aukerak arakatu eta kultura bera ulertzen hasteko.</p>

<p style="text-align: center;"><u>Arterako konpetentzia</u></p> <p style="text-align: center;">Arte Hezkuntza:</p> <p style="text-align: center;">– Plastikako, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza</p> <p style="text-align: center;">– Musika</p> <p style="text-align: center;">– Arte Eszenikoak eta Dantza</p>	
	<p style="text-align: center;">2.3.– EDUKIAK</p> <p style="text-align: center;">2.3.1.– Lehen zikloa.</p> <p>4. MULTZOA. Arte-komunikazioko beste modu batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Zentzumenak esploratzea eta askotariko materialak eta tresnak erabiltzea. Materialen eta tresnen ezaugarri batzuk deskubritzea. <ul style="list-style-type: none"> ● Ahotsaren, norberaren gorputzaren, eguneroko bizitzako objektuen eta musika-tresnen aukerak arakatzea. <ul style="list-style-type: none"> ● Soinu eta kontraste batzuk entzumenaren bidez bereizten hasia: zarata-isiltasuna, luzea-laburra, ozena-etzia, etab.
	<p style="text-align: center;">2.4.– EBALUAZIO-IRIZPIDE ETA – ADIERAZLEAK</p> <p>1) Askotariko hizkuntzak erabiltzea sentsazioak, emozioak, beharrianak eta gogoak ezagutu, adierazi eta, arian-arian, erregulatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Askotariko komunikazio-estrategiak erabiltzen ditu (hitzezkoak, gorputzaren erabilera, musika, etab.) bere beharrianak, emozioak, bizipenak, sentsazioak eta gogoak adierazteko. <p>6) Artearen, teknologiaren eta ikus-entzunezkoen bitartekoak, materialak eta teknikak erabiliz adieraztea eta komunikatzea, eta haien aukerak arakatzeko interesa adieraztea, haiekin egiten direnak gozatzeko eta gainerako pertsonekin bizipen estetikoak eta komunikazioak konpartitzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Gorputzaren, musikaren, teknologiaren

	<p>eta ikus-entzunezkoen hizkuntzak eta plastikaren material, tresna eta tekniken adierazpen-ahalmenak probatzen eta esploratzen ditu.</p> <ul style="list-style-type: none">• Musikako, gorputz-adierazpeneko eta/edo adierazpen plastikoko jardueretan parte hartzen du, banaka nahiz taldean.
--	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

V. Eranskina: Jarduera taulak.

1. Jarduera	Deskribapena	Materialak Baliabideak	Espazioa Debora
<i>Margolan musikala</i>	<p>-Haurrek 3 aldiz entzungo dute musika; 1 Motibatezko 2 Margolanari ekiteko 3 Sakontze lana egiteko (Margolana bukatu)</p> <p>-Musikaren iraupena 3-4 minutu gehienezko iraupena</p>	<p>-Orriak</p> <p>-Margoak</p> <p>-Musika: Camille Saint-Saëns (El carnaval de los animales, flamingos)</p>	<p>-Musika gela</p> <p>-50 minutu</p>

2 Jarduera	Deskribapena	Materialak Baliabideak	Espazioa Denbora
<i>Txartelak gora!</i>	<p>- <i>El carnaval de los animales, flamingos</i> musikaren forma bitarra landuko da (A/B)</p> <p>-Bi talde sortuko dira: A taldeak bere txartel gorria altxatuko du A zatian eta B taldeak bere txartel berdea B zatian</p>	<p>-Musika: Camille Saint-Saëns (El carnaval de los animales, flamingos)</p> <p>-Txartelak</p>	<p>-Musika gela</p> <p>-50 minutu</p>

3 Jarduera	Deskribapena	Materialak Baliabideak	Espazioa Denbora
<i>Ekaitzaren Festa</i>	<p>-Ipuin muiskal bat kontatuko zaie huarrei</p> <p>-Musika-tresnak eta <i>Jailhouse Rock</i> abestia erabiliko dira</p>	<p>-Musika: Elvis Presley (Jailhouse Rock)</p> <p>-Musika-tresnak (carriloia, tinbala eta kaskabiloa)</p>	<p>-Musika gela</p> <p>-50 minutu</p>

4 Jarduera	Deskribapena	Materialak Baliabideak	Espazioa Denbora
<i>Rockaren Trena</i>	<ul style="list-style-type: none"> -<i>Jailhouse Rock</i> abestiaren 2 zatiak (A/B) ezberdintzeko, bi ilara/ tren sortuko dira. -Lehenengo ume ilara, A zatia entzuterakoan mugituko da -Bigarren trena B zatia entzuterakoan, -Hiru aldiz errepikatuko da ariketa. 	<ul style="list-style-type: none"> -Musika: Elvis Presley (<i>Jailhouse Rock</i>) -Trenak 	<ul style="list-style-type: none"> -Musika gela -50 minutu (40 minutu ariketa burutzeko eta 10 deskantsatzeko)

5 Jarduera	Deskribapena	Materialak Baliabideak	Espazioa Denbora
<i>Asamblea musikala</i>	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Zazpi Jauzi</i> dantza entzungo dute haurrek -Hiru aldiz entzungo da abestia -Entzun ondoren korroan indioak bezala eseriko gara -Galdera hauek egingo zaizkie haurrei: "<i>Zer sentitu duzue musika entzuterakoan?</i>", "<i>Zer irudikatu duzue buruan?</i>" 	<ul style="list-style-type: none"> -Musika: Herrikoia (<i>Zazpi Jauzi</i>) 	<ul style="list-style-type: none"> -Musika gela -50 minutu



6 Jarduera	Deskribapena	Materialak Baliabideak	Espazioa Denbora
<i>Gure dantza sortzen</i>	<ul style="list-style-type: none"> -<i>Zazpi Jauzi</i> dantza herrikoiaaren bi zatiak (A/B) mugimenduaren bitartez adieraziko dituzte haurrek. -A zatian, txaloak emango dituzte eta gelatik mugituko dira.. -B zatian, eskuekin belautzen 	<ul style="list-style-type: none"> -Musika: Herrikoia (<i>Zazpi Jauzi</i>) 	<ul style="list-style-type: none"> -Musika gela -50 minutu (40 minutu ariketa burutzeko eta 10 deskantsatzeko)




	gainean kolpatuko dituzte. -Hiru aldiz errepikatuko da.		
7 Jarduera	Deskribapena	Materialak Baliabideak	Espazioa Denbora
<i>Pozik, triste, haserre edo beldurtuta?</i> (Orria eranskinetan)	-Haurrek 3 aldiz entzungo dute 3 abestiak. -Entzun eta gero, emozio ezberdinak adierazten dituen orri bat banatuko zaie eta haiek gomets bat jarri beharko dute abestiak entzun bitartean identifikatuta sentitu diren emozioari. -Bukatzeko, entzundako 3 abestietatik zein izan duten gustokoen galdetuko zaie.: <i>“Entzundako hiru abestietatik esan zein gustatu zaizun gehiago. Zergatik?”</i>	-Emozioen orria (eransinetan) -Gometsak -Musikak: Camille Saint-Saëns (El carnaval de los animales, flamingos) Elvis Presley (Jailhouse Rock) Herrikoia (Zazpi Jauzi)	-Musika gela -50 minutu

8 Jarduera	Deskribapena	Materialak Baliabideak	Espazioa Denbora
<i>Hodeiak eta Eguzkia</i> (Eredua, orria, eranskinetan)	-Arestian entzundako hiru abestien forma (A/B) landuko da. -A zatiari marrazki bat dagokio (Eguzkia) eta B zatiari beste bat (hodeia) -Abestian zehar haurrek behatza irudi ezberdinen gainetik pasatu beharko dute A edo B zatia entzuterakoan	-Musikak: Camille Saint-Saëns (El carnaval de los animales, flamingos) Elvis Presley (Jailhouse Rock) Herrikoia (Zazpi Jauzi) -Orria irudiekin	-Musika gela -50 minutu

VI. Eranskina: 3. ARIKETA / IPUIN MUSIKALA













Ekaitzaren festa

Bazen behin marigorringo txiki bat (), bere beldur handiena ekaitza zen. Neguko egun batean paseoan atera zen eta bat-batean trumoiak entzun zituen (). Gure marigorringo txikia asko larritu zen, ez zuen ekaitz hori gerturatzea, are gehiago bakarrik egonda.

Zorterako, sugearekin egin zuen topo () oso lagun ona zuena. Sugeak marigorringoa kezkatuta somatu zuen eta marigorringoak bere beldurra kontatu zion (). Sugeak () ekaitza lagunaren artean pasatzea proposatu zion.

Ekaitzaren festan lagun asko elkartu ziren: behia, txoria, inurria eta zaldia. Musika ez zen falta, animalia guztiak *Jailhouse Rock* dantzatzera animatu ziren eta horrela trumoiaren hotsa ez zen entzun.

VII. Eranskina: 7. ARIKETA: POZIK, TRISTE, HASERRE EDO BELDURTUTA?

<p>1 abestia EL CARNAVAL DE LOS ANIMALES</p>				
<p>2 abestia ELVIS JAILHOUSE ROCK</p>				
<p>3 abestia ZAZPI JAUZI</p>				

VIII. Eranskina: 8. ARIKETA: HODEIAK ETA EGUZKIA.

Haurrak A zatia denean behatza eguzkiaren gainean jarriko dute eta B zatia denean hodeiaren gainean, honek erritmoa eramaten lagunduko die.

A



B



Itxaso Anda Etxebarria

2019-2020 ikasturtea